

uk

151. zenbakia / 2009ko otsailaren 16a





## UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

ARGITARATZAILEA: Boluntzarreta Elkarte

HELBIBIDEA: Amezi 6, 4. solairua, 5. bulegoa 48991 GETXO  
e-mail: uk@aldizkaria.biz / Posta Kutxa 171 / Tel: 94 491 13 37

ZUZENDARIA: Jokin Aspuru

ERREDAKZIOA: Irantzu Sagarmiraga, Maitane Nerekan,  
Zuberora Iturburu

FOTOGRAFIA: Ane Basagoti

TESTUEN ORRAZKETA: Zortza Vega

KOLABORATZAILEAK: Jorje Perez, Bittor Egurrola,  
Xabier Paya, Berbots Erandion Euskaraz eta  
Bizara Lepoan Euskara Elkarte.

MARRAZKILARIAK: Dogan Gozel

PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA: Zuriñe Martinez (94 491 13 37)

KANPO HARREMANAK: Gorka Orueta

FILMAZIOA: Argia / INPRIMATEGIA: GESTINGRAF

LEGE GORDAILUA: BI-1878-00

ISSN: 1576-6799

© Boluntzarreta



Aldizkari hau Euskal Herriko  
herri aldizkari eta euskara elkarten  
Topaguneko parteidea da

### ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK



# Non zer

4. GU GEU.
5. IRUDIA. Koikili, Euskara Bizi.
7. LEHEN ETA ORAIN. Areetako muskullutegia, 1880.
8. TALAIA. Beste begirada bat eskualdeari.
11. ERRETRATUA. Aitor Fdz. de Martikorena, Itzubaltzeta.
12. HERRIZ HERRI. Getxo 12. Leioa 16. Erandio 18. Sopelana 20. Berango 22. Gainerako herriak 23.
25. AGENDA.

### SAKONEAN

26. ALBUMA. Santa Ageda 2009.
28. ARGAZKIA. Gorizko erietxea, 1942.
30. BERBETAN. Aizpea Goenaga.
34. FOTOGRAFIA. Cecilia Paredes.

### KULTURA ETA AISIA

42. ZINEMA. Barton Filmsen euskarazko ekoizpenak.
43. MUSIKA. Berri Txarraren seigarren lana. Diskoen erreseinak.
44. LIBURUAK. Antzerki lanen itzulpenak. Liburuaren erreseinak.
45. KIROLAK. Getxoko Bela Eskola.
46. ELKARRIZKETA. Dominique Saillard.

### AMAITZEKO

49. NORA JOAN. Txiberri Taberna, Urduliz.
50. HOROSKOPOA.
51. KOMIKIA. Dogan Gozel.
52. DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
53. FLASH BACK. Plentziako txikiteroak (zuzenketa), Bittor Egurrola.
54. AITORMENAK. Jon Arretxe .

Azala: Cecilia Paredes




30 Aizpea Goenaga

### Berbetan

Lapiko artean topatu dugu zuzendari donostiarra, *Sukalde kontuak* film amaitzean.



11 Aitor Fdz. de Martikorena



54 Jon Arretxe

Bilatu zure Renault "Km.0"

Bilbo Berri Getxo-ren web berrian

[www.seminuevosengetxo.com](http://www.seminuevosengetxo.com)

**BILBO BERRI**  
Bizkerre, s/n - ALGORTA. Tel. 94 430 68 81

**Leihatila**

&gt; Pedro Garcia Larragan

**Bankuak**

‘Lotsagarria, arduragabekeria, ez da irabaziak jasotzeko unea’. Honako hauek Ibarretxe, Zapatero eta Barack Obamari berari, entzun dizkiegu azken egunotan. Bankuek aurkeztutako emaitzengatik. Nahiz eta krisi sakonean murgilduta egon, nahiz eta enpresak eta familiak gorriak ikusi (beste gauzen artean krediturik emoten ez digutelako), 2008an bankuek dirua irabazi dute. BBVA eta Santanderrek bakarrik, batera, 14 mila milioi euro. Ez da makala. Batez ere, jaso duten laguntza publikoa gizarteratu ez dutelako. Denon dirua erabili dute euren zuloak tapatzeko, ez kredituak luzatzeko, ezta ‘txorrota zabaltzeko’ ere. Kreditu barik ez da ekonomia jarduerarik. Enpresek ezin dute ‘pertsiana zabaldu’, eta gizasemeok ezin dugu erosi, ez etxerik, ez kotxerik, ez beste gauza asko. Salerozerik ez badago, krisia gero eta sakonago bihurtuko da. Langabezia handiagoa eta itxiera gehiago.

Ez dakit bankuak egoera honetaz kargutzen diren. Baietz esango nuke. Haserrea ‘in crescendo’ doa, bizi dugun krisia, neurri handi batean, eurek eraginda dela jakinda. Atzo Sevillako unibertsitateko katedradun bati entzun nion: ‘bankuak kasinora joan dira gure diruagaz, ...eta galdu egin dute’. Orain, ez emon bizkarra. Errua gurea, esaten dute. Egora honek itxura txarra dauka.

**Iritzia**

**Koldo Iturbe Getxoko Euskara eta Kultura zinegotziak euskararen egoerari buruz berba egin zigun aurreko alean. Oraingoan, gai horri buruz Nahikari Ayo Algortako Bertso Eskolako kideak duen iritzia ekarri dizugu.**

**Eta gazteok zer?**

Aurreko artikuluan Koldo Iturbek aipatu zigun zein zen euskararen egoera Getxon, hiztunen portzentaia, EBPnren egoera. Datuak hortxe daude, eta lagungarriak dira ikuspegi soziologikorako, herritarren ekarpenak islatzeko, zein

**«Triste da, urte batzuk pasa, ikastolako lagunakaz topatu eta gaztelera hutsean ibiltzea»**

gehietak, behintzat portzentaia handia, euskara mihian erabiltzeko aski kapazak garenak.

Orain hamar urte baino euskara gehiago entzuten da gure kaleetan, gehien bat guraso eta seme-alaben artean. Eta gazteen artean? Badago lagunarte eskaldunik Getxon, %100 euskaraz egiten duenik? Gaztelera jotzeko joera dauka-

gu, gero eta gehiago. Triste da, urte batzuk pasa, ikastolako lagunakaz topatu eta gaztelera hutsean ibiltzea euskara ahaztuta daukagulako.

Beste alde batetik, Getxon gazteoi zuzenduta dauden ekintzak euskaraz eskasak dira. Ez dago euskarazko eskaintzarik. Ikastaro gehienak gaztelera eskaintzen dira. Baten batek esango du: baina gaztelera baldin badakizu, zer axola du horrek? Betiko joera: bederatzik euskaraz baldin badakite eta batek gaztelera, gaztelera egingo dugu.

Euskara Aholku Batzordean proposatu nuen, eta hemendik ere berriro proposatu dut: zergatik ez dugu martxan jartzen lagunarte antzeko proiektu bat? Zergatik ez ditugu saritzen euskaraz egiten duten lagunarteak?

Mimoz zaintzen ditugu euskara ikasten dutenak, ahalegina egiten dutenak. Zergatik ez gara hasten euskaraz egiten dutenak mimatzen, saritzen eta zaintzen?

**Nahikari Ayo (ALBEko kidea)**



2008KO OTSAILA

**gu geu****“Ziklogenesi” eta elur artean**

Aurrera goaz, “ziklogenesi”, elurte, urakan, uholde, lurrikara eta fenomeno meteorologiko guztien kontra; “sasi guztien gainetik eta hodei guztien azpitik”. Eguraldiak filmeko paper protagonista lortu du aurtengo neguan; nahiz eta, gure uste apalean, bere lana ez den hainbesterako izan. Agian, Oscar saria emango diote (eta “Penelope Gurutze” etxera joango da esku hutsik). Baina, UKn baditugu aktore garrantzitsuagoak eta, horregatik, aurrera egiten dugu zerura begiratu barik.

Ale honetan, gainontzekoetan bezala, zuek zarete protagonistak; zuek eta gure kolaboratzaile fidelak. “Plaza” omirako Pedro Garcia Larraganen “lehiatila” eta Nahikari Ayoren iritzia ekarri ditugu. Urribitakora ataleko bertsoak Arrate Illaro bertsolari gazteak egin ditu. Josu Larrañagak bere bazter kuttunaren inguruan berba batzuk oparitu dizkigu. Fotografia tartean, Cecilia Paredes artista perutarren irudiak ikusi ahal izango dituzue. Espero dugu zuen gustukoa izatea!

**UKko lantaldea**

**Entrenamenduetan euskaraz /** GEHITU KIROLERA egitasmoaren barruan entrenatzaileak euskaraz egitera bultzatzeko saioak prestatu dituzte Getxon. Otsailaren 6an hasi ziren ekimen honekin eta martxoaren 26a arte egongo da martxan. Iturgitxi, Getxo, Bizkerre, Galea, San Nikolas, Erromo eta Itzubaltzeta taldeetako futbolariak hartuko dute parte entrenamenduetan. Guzti horiek, entrenatzaile berezia izango dute; Koikili Lertxundi Athleticoko jokalaria, hain zuzen ere. Pilota oinetan eta euskara ahoan duela ibiliko da gure futbol izarra, “euskara bizi” ikusi gura baitu. ○ / Argazkia: **Jose Mari Martinez Bubu**





Euskal Herriak behar duen  
**ALDAKETA  
DEMOKRAZIA**  
**3.000.000**

**D3M**

**aurrera begira**

[lehen]



[orain]



**Iraganez doa denbora\* beti / AREETAKO MUSKULLUTEGIA, 1880**

\* **Denbora:** gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.



uribitakora > eguneroko terrentan



2009ko urtarrila, metro geltokian

Testua: **Arrate Illaro** / Argazkia: **Ane Basagoiti**

\* Doinua: Mendian gora haritza

Etxera doan unean  
Metroko B1 gunean  
badago zerbait argazki zuri  
(e)ta beltz ilunean,  
burua du urrunean  
aulki luze zurrunean  
kolore pixka bat sartu nahian  
bakartasunean.

“Gaur ez dut ikusi Alaitz  
betiko aurpegi alaiz,  
arazoren bat iger dezaket  
bere hitzetan maiz;  
gaur be ez naiz irten garaiz,  
nazkatu naiz hainbeste gaiz...  
etxera heltzean afaldu eta  
sofan etzango naiz.”

“Zenbat diru dut libretan?”  
“Berriz hasiko naiz dietan”  
“Asteburuan atsedean hartu  
behar dut benetan.”  
Eguneroko terrentan  
galtzen gara gehienetan  
baietz askoren burua ikusi  
argazki honetan.

Uribitakoran parte hartu gura duzu? Bidai iezaguzu atal honetan agertzea gura zenukeen argazkiren bat eta bertan ikusiko duzu, bertso eta guzti: [uk@aldizkaria.biz](mailto:uk@aldizkaria.biz)

**uk** zure **dirulaguntza** behar-beharrezkoa dugu!

**Boluntzarreta**  
**BBK 2095 0121 10 9102483676**  
**sartu zure laguntza** gure kontu zenbakian

**UK Uribe Kostako Aldizkaria** 171 posta kutxa / Amezi 6, 4. solairua 5. bulegoa / 48990 Getxo / [uk@aldizkaria.biz](mailto:uk@aldizkaria.biz) / tel.: 94 491 13 37

internet > “eus” domeinua lortzeko ekimena ipini dute martxan



www.puntueus.org web gunea ipini dute elkartearen barri emateko

**Euskarak** Interneten duen espazioari ikur bat sortu eta izen bat emateko helburuagaz sortu barri da PuntuEus Elkarteak. Euskalgintzako (Euskaltzaindia, Kontseilua, Euskal Idazleen Elkarteak etab.) hezkuntzako (Ikastolen Elkarteak, EHU, etab.) eta komunikazio arloko (Internetikak, Euskal Irrati Telebista Herri Erakundea, etab.) hainbat eragile batu dira euskal komunitatearen nazioarteko aitortzaren alde. “.eus” domeinua lortzea da, hain zuzen ere, elkartearen abiapuntu eta helburu nagusia. Duela hiru urte sortu zen hizkuntzak eta kulturak Interneten ikusgarri bilakatzeko lehen domeinua: .CAT, Hizkuntza eta Kultura Katalanaren Domeinua. PuntuEus Elkarteak izango da euskaldunentzako domeinua lortzeko eskaria egingo duena, baina herritarren sostengua behar du. [www.puntueus.org](http://www.puntueus.org) web orria ipini dute atxikimenduak eransteko. ○

umeak > Uribe Kostako BBKko haur eskoletan izena eman daiteke



Algortako Olarretxe kaleako haur eskola

**Otsailaren 27 arte** egongo da zabalik Algortako (Olarretxe kalea 33) Erromoko (Ezekiel Agirre kalea 21) eta Leioako (Ikea kalea 13) BBKko haur eskoletan 2009-2010 ikasturterako izena emateko epea. Guztira 887 plaza eskainiko dituzte 0-2 urte arteko neska-mutilentzat. Goizko 07:30etik arratsaldeko 18:00etara daude zabalik haur eskolak; gehienetan, hezkuntza elebiduna eskaintzen dute. Guztira 140 hezitzaile daude lanean. Umeak, adinaren arabera “sehaska” (0-1 urte) edo “lau hanka” (1-2 urte) getetan banatzen dituzte. Umeen zaintza bermatzeaz gain, musikagaz estimulatatu eta psikomotrizitate ariketak egiten dituzte. Seme-alabak haur eskoletara eroan gura dutenek, [www.bbk.es](http://www.bbk.es) web orrian dagoen eskari orria bete eta eskoletara eroan baino ez dute. ○

**saiazgetaria** HOTELA

Roke Deuna 25  
280808 Getaria  
Gipuzkoa

...harria ...lehengo garaiak...

[www.saiazgetaria.com](http://www.saiazgetaria.com) / [info@saiazgetaria.com](mailto:info@saiazgetaria.com) / t. (+34) 943 140 143



## aratusteak > Badator urteko ospakizunik koloretsuena!



Eskualdeko herri guztietan antolatu dute ekitaldiren bat edo beste

**Aratusteak**, karnabalak, inauteriak, ihoteak... nahi beste izen daude neguaren amaiera aldera ospatzen den jai ospetsua izendatzeko. Euskal Herrian indar handia dauka ospakizun honek. Zubieta eta Iturengo lagunek eman ohi diote hasiera gure karnabalei. Horren ostean, Zuberoako Maskaradak, Mundakako Lamiak eta Atorrrak, Tolosako eta Donostiako desfileak, Bilboko Zarambolak eta Farolin eta gainontzeko guztiak datoz. Inauterien hasiera Septuagesimak mugarrizten du; eguaztena baino hiru igande lehenago. Hala ere, hainbat lekutan, Eguberri katolikoa eta 12 egunetara hasten dira. Neguko janari erreserbak, Aste Santuaren aurreko baraua baino lehen, jateko beharragaz dauka harremana. Inauteriak martitzenean amaitzen dira, eta hurrengo egunean hasten da ofizialki baraua. Uribe Kostan badaude karnabalak data "ofizialeatik" kanpo ospatzen dituenik; Algortan asko, otsailaren 28an mozarrotuko da. Plentzian, lehenengo inauteri tematikoak egingo dituzte Jai Alai pilotalekuan, martxoaren 7an. Egun batean, zein bestean, eskualdeko herri guztietan antolatu dute ekitaldiren bat edo beste. Pailazoa, troglodita, sorgina... lan egiteko gogo edo denbora faltak joan den urteko mozarro bera aukeratzera erroten gaitu askotan. Hala ere, badago urtero buruari eragin eta mozarro barria janzten duenik. Eta badago kareta urte osoan kentzen ez duenik ere. ○

### Ekitaldiak

#### ERANDIO

- **Kale animazioa eta mozarro lehiaketa:** 02-20, 20:00etan. Altzagan.
- **Umeentzakoak:** 02-21, goiz eta arratsaldean. Altzagan.
- **Lantzeko inauteria:** 02-21, 19:00etan. Erandio Goikoan.

#### LEIOA

- **Nagusientzako inauteriak:** 02-20, 17:00-03:00. Herrian zehar.
- **Haurren inauteriak:** 24an. 11:00-19:00. Sakoneta polikiroldegian.

#### GETXO

- **Eskola inauteriak:** 02-20, goizez. Herrian zehar.
- **Umeentzako karaokea, txokolata eta tailerrak:** 02-20,21, 18:00. Geltokia plazan.
- **Inauterietako kalejira eta joaldunak:** 02-21 goizez. Algortako oinezkoentzako kaleetan.
- **Zuberoako inauteriak eta fanfarrea:** 02-22, goizez. Algortako oinezkoentzako kaleetan.
- **Erromoko inauteri herrikoikiak:** 02-21, 12:00, Santa Eugenia.

#### SOPELANA

- **Ander Deuna eta Zipiriñeko umeen desfilea:** 02-20, 09:30. Herrian zehar.
- **Umeentzako jolasak eta tailerrak:** 02-21, goizez. Pilotalekuan.

#### BARRIKA

- **Haur Parkea eta makilaje tailerra:** 02-21, 11:00-13:00.

#### PLENTZIA

- **Bazkaria eta mozarro lehiaketa:** 02-28. Jai Alai Frontoian. Izena emateko: ARALDI.
- **Inauteri tematikoak:** M-7, 12:00. Jai Alai Pilotalekuan.



"Gogorra da zuretzat kontu jakinak direnak zure ondoan bizi den batentzat guztiz arrotzak direla ikustea"

## Aitor Fdz. de Martikorena Tigre > AEKko irakaslea

**Auskalo** zenbat aldiz azaldu duen gure 151. aleko Erretratuak ergatiboa noiz eta zergatik erabili behar den. Orain 16 urte hasi zen lanean AEKn Aitor Fernandez de Martikorena itzubaltzetarra. Badago "Tigre" ezizenez ezagutuko duenik, urtero Sopelan antolatzen den Esaera Zaharren Txapelketan parte hartzen dutenek batez ere: "Aurkezlea izaten naiz eta publikoari Tigre esatea gustatzen zaio". Uribe Kostako euskaltegi guztietatik pasa da, nahiz eta azkenengo hiru urteak Bilboko Txakur kalean eman dituen. Eskolak euskaldundu ez duena, bere garaian ikasi ezin izan zuen gizon-emakume heldua... horiek dira eskualdeko euskaltegiak hurbiltzen direnak. : "Militantzia apur bat nabaritzen da oraindino ere; beste eskualde batzuetan euskaldunagoak direnez ez daude horren kezkatuta euskararen gaiagaz". Ikasleen aurrerapausoak ikustea pozgarria da Fdz. de Martikorenarentzat: "Oso polita da euskal kulturaren inguruko zer edo zer azaldu eta ondoan daukaten baina, aldi berean, urrun daukaten mundu hori hurbilago daukatela ikustea". Hala ere, dena ez da arrosa kolorekoa euskara irakasle batentzat: "Gogorra da zuretzat kontu jakinak direnak zure ondoan bizi den batentzat guztiz arrotzak direla ikustea". Orain egun batzuk, Mihiluze telebista lehiaketa ikusi ahal izan genuen; lehenengo egunean botea eroan zuen etxera: "Bikotekidearen ideia izan zen; oso esperientzia positiboa izan da". ○ Argazkia: **Ane Basagoiti** / Testua: **Maitane Nerekan**

### cianoplan Reprografia

global printers

Villa de Plentzia 6. zbk  
Antiguo Golf - Getxo  
Tlf. 944 649 087  
944 648 691  
<http://www.cianoplan.es>

- Imprimatze eta plano kopiak
- Kartelak kolorez eta z/b
- Digitalizazio eta bektorizazio, automatikoa eta lagundua
- Fotokopiak kolorez eta z/b
- Era desberdinetako koadernaketak
- Plastifikazioak
- Cd eta DVD grabaketak eta imprimaketak
- enmarkaketak





# Aurrekontuak 2009

**EAJ eta PSE** alderdiek idatzizko hitzarmena sinatu dute hurrengo udalbatzan **aurtengo 100.670.018 euroko aurrekontua onartzeko** helburuagaz

**Aurtengo aurrekontua onartzeko asmoz, hilaren 27ko udalbatzan gauzatuko dena, EAJ eta PSE alderdiek idatzizko hitzarmen harrigarria (orain arteko joerari begiratu gero) sinatu barri dute. Ziurrenik historikoki udalerriko aurrekonturik dirutsuenak izango dira aurtengo hauek, orotara 100.670.018 euro, horretarako 6,3 milioi eurotan zorpetuko da Udala.**

**Aipatutako** alderdi biek adostutako aurrekontuaren (iazkoa baino %3,66 gehiago) helburu nagusiak, Getxoko alkate Imanol Landak adierazi duenez, hurrengoak dira: *“jarduera ekonomikoa suspertzea, egoera latzean daudenei laguntzea eta udalerrirako estrategikoak diren ekimenak ziurtatzea”*. Alkatearen esanetan, giza eta ekonomi arloan oso zaila izango da aurtengoa, *“Udalkutxatik (Bizkaiko Foru Aldundiaren diru-sarriren soberakinetik) sartzen den diru kopuruaren murrizketa egongo da eta Udalak, herritarren eta enpresengan dagoen presio fiskala motelduko du (tasa, hobariak etab. jai-tsiz)”*. Hala, ezarritako helburuak lortu ahal izateko Udalak *“arrazoizko”* zorpetze-ari ekingo diola jakinarazi dute (6,3 milioi euroko kreditua eskatuz, aurrekontuaren %6,26), eta hurrengo urteetan ere zorpetzea mantentzeko asmoa dute, *“ixikiagoa izango bada ere, udalerrian estrategikoak diren proiektu bi (Getxo Antzokia eta Santa Eugeniako kultur etxea) aurrera eroateko”*. Izan ere, alderdi bien adostasunak proiektuok barriro ere martxan ipintzea ahalbidetuko ei du. Alorrez alor, besteak beste,



Hilaren 27an Udaletxean egingo den udalbatzan onartuko ei da 2009ko aurrekontua

horrela banatuko da aurrekontua: *“Giza politikak garatzeko 18.488.858 euro (aurrekontuaren %18,4), udalerriko sustapen ekonomikorako 6.420.218 euro eta azkenek, eta udalerriko osoa hobetzeko 15 milioi euro enabilliko dira (bertan ez dira proiektu estrategikoak sartzen, urte anitzetara finantziatuko dira-eta)”*.

**«6,3 milioi eurotan zorpetuko da Udala, hau da, aurrekontu osoaren %6,26ko zorra hartuko du»**

*tan finantziatuko dira-eta)”*.

Beste egitasmoen artean, epe ertain-luzekoak, hurrengoak aipatu dituzte: Ereagako hondartza berreskuratzea udako musika ikuskizunak antolatuzeko, Bizkaiko Zubiko plaza barriztea ekitaldiak antolatuzeko, hiri-zoruan babeseko 1.000 etxebizitza eraikitzea bultzatzea (horretarako

2,5 milioi euro bideratuko dituzte lurzoru erosteko), gazteentzako kiroldegia gauzatzeko (horretarako aisialdi programa bat martxan ipiniz), III. Berritasun Plana idaztea (Emakumearen etxea egitea jaso lezakeena), etab.

Udal tasa eta zergei dagokienez, zarama tasa %30 jaitsiko da herritarrentzat, eta %35 dendarientzat eta ostalarientzat. Enpresa jarduera barriek erdia ordainduko dute lehenengo urtean, eta errentaren arabera familia ugariak %50era arteko beherapena izan dezakete estolderia zergan eta Musika Eskolako matrikulazioak, o

## Datu batzuk

- Giza politikarako 18.488.858 euro
- Sustapen ekonomikora 6.420.218 euro
- “Udalerriko hobetzeko” 15 milioi euro
- Zarama zerga %30 gutxiago

## Etorkinen errotzea helburu

doako lantegiak antolatu dituzte otsail-urria bitartean



Iaz lantegietan 78 lagunek (txangoetan 300) hartu zuten parte. Informazioa: 94 466 01 03

**Getxon Bizi** Etorkinentzako Harrera Programaren III. ekitaldiaren barruan, Udaleko Gizarte Zerbitzuetako Immigratio eta Kulturarteko Unitateak, Munduko Medikuek GKEgag elkarlanean, lau lantegi eta hainbat txango antolatuko dituzte urria bitartean. Gizarte Zerbitzuetako zinegotzi Elena Coriaren esanetan, *“programak prestakuntzarako, aisiarako eta inguruaren eta harrera-gizartearen ezagutzarako espazioak batzen ditu, helburu nagusia atzerriko etorri diren eta azken urteetan Getxoko udalerrian bizitzea erabaki duten herritarrek ahalik eta ongizate handiena izatea eta hemen errotzen laguntzea delako”*.

Egitarauari begira aurten badira barritasunak, hala nola: lantegi bakoitza amaitutakoan “euskal historia eta kultura ezaguratzeko asmoz euskal geografiko hiri eta

leku adierazgarrietara” egingo diren txangoak, eta Informatika ikastaroa bera.

Aurten programa antolatzeko bideratuko duten 17.500 euroko aurrekontuagaz, esan legez, 4 dira eskainiko dituzten lantegiak: Ostalaritzakoa (otsailak 22-apirilak 19; izena emateko epea zabalik); Informatikakoa (maiatzak 10-31; izen-ematea apirilaren 24tik aurrera); Besteren laguntza behar duten pertsonen zaintzakoa (ekainak 21-uztailak 26; izen-ematea: ekainaren 5etik aurrera) eta Elikadura eta sukaldaritza (irailak 13-urriak 18; izen ematea: abuztuak 28). Izen-ematea Herritarren Arretarako Bulegoetan, Informatikakoa salbu (Fadura Institutuan) gainontzeko lantegiak Erromo Ezequiel Agirre kaleko 21ean emango dira, domekero (10:00-14:00). o

Izen-ematea: [www.kaixogetxo.net](http://www.kaixogetxo.net)

## URIOLLEN OSTEAK: URAREN PROIEKTUA ONARTUTA

Hilaren 5erako iragarri zuten batzarra aurreratu behar zuten Uholdeetako Batzorde Bereziki urtarrilaren 27ko uriolen eraginez. Batzordeak Eusko Jaurlaritzaren menpe dagoen URA Agentziaren egitasmoa onartzeko deitu zuen batzarra, azkeneko uriolak denbora ez galtzera eta martxan ipintzera behartu ditu. Hala, URAREN egitasmoak batzen dituen (150. UKn azaldutakoak) eta iazko abendutik iragarrita zeuden urtziako neurriak aho batez onartu ditu Getxoko Udalbatzak. Dena dela, badira, oposizioan dauden PP eta PSE alderdien esanetan, oraindik ere eztabaidatu beharreko kontu eta xehetasun batzuk; hurrengo udalbatzatan eztabaidatuko dituztenak. Ahalik eta arinen gauzatu beharreko neurri horien lanek ekaina inguruan hasiko dira, urte bat iraungo ei dute. Azkeneko urioletan lau etxebizitza (Larrañazubi aldean) eta hamar bat garaje edota trasteleku kaltetu ziren, 5 laguni ostatu eman behar izan zieten hotel batean (Gobelak gainezka egin eta gero euren etxebizitzetara ura sartu zelako), zenbait ikastetxe eta Fadura kiroldegia hustu behar izan zituzten, eta hurrengo egunetan 750 tona hondakin baino gehiago batu zituzten garbitzaileek Gobela, Kandelu eta Bolue ibaietatik. Iragan barri diren uriolak barriro ere “larriarazi” ditu auzotarrak eta hainbatek lanek iraun bitartean behintzat beste leku batean ostatu hartzea eskatu du. Udalak kaltetuei, aurrekoan legez, dirulaguntzak emango dizkiela jakinarazi du, bestelako neurririk ez dute adostu.

## OLGETAN JARRERA SEXISTAK SAIHESTEKO

Udalak jolastean jarrera sexistak ekiditeko gomendioak eta proposamenak batzen dituen liburuaren 100 ale banatuko ditu. Urtxintxa aisialdi eskolaren “Jolasen Laborategia” liburu bat banatu dutena, Udalak 1.500 euro eman zizkien liburu kaleratzeko. Aleak ikastetxe, aisialdi eta euskara elkarte, liburutegi eta ludoketan aurki daitezke.

san inazio  
autoeskola  
1951n sortua

LCC - A1 - A - B - BTP  
baimenak

Telletxe, 13 / Tel. 94 460 00 45  
ALGORTA

Garaizar  
berrikuntzak

- igeltserotza orokorrean
- etxebizitzak eta lokalak
- gremioak

tel: 944 430 52 43 / 607 952 977 • [regaraizar@euskalnet.net](mailto:regaraizar@euskalnet.net)  
Illeta kalea 1 • ALGORTA





**Miguel Martinez** > Diseinatzaile grafikoa

“Garrantzi bakoa dela uste dute; diseinu xehetasun txikiena erabakigarria izan liteke



Informazio gehiago: [www.mickteran.com](http://www.mickteran.com) edo [flickr.com/mickteran/](https://www.flickr.com/photos/mickteran/)

**Miguel Martinezek (Algorta, 1978) Ikus-entzunezko Komunikazioa ikasi zuen, “karrerak zertan zetzan ez nuen argi, eta diseinatzaile lanbidea bazenik ere ez nekien”. 15 urte argazkiak egitea gogoko zuen, Borja Crespogaz Getxon komiki ikastaro batean parte hartu zuen, marrazketa oso gogoko baitu, baita tipografia ere. Kontu horiek eroan ei zuten diseinatzaile grafiko izatera, Madrilan egin zuen Diseinu Grafikoa masterra.**

—Azal egiguzu, zein da zure lana?

—Egia da, “diseinatzaile grafikoa” diozunean, ematen du jendea ezer esan ez bazenio legez lotzen dela. Modu erraz-xume batean azaltzeko, inguratzen gaituzten gauza guztiek daukate diseinu osagai bat; orduan, egiten duguna da gauza horiek guztiak nabarmendu, bi dimentsiotako (pankarta, aldizkari, liburu, diskoak etab.) edota pantailazko (web orriak, aplikazioak etab.) diseinuak eginez. Harremana beharretik jaiotzen da; bezeroa hurbiltzen da behar zehatz batez, zerbait komunikatu gura behar duelako, edota sustatu, edo enpresa

bat sortzekotan dabil eta nortasun jakin bat eman gura diolako. Hortik aurrera egoera aztertu, konponbide onenak bilatu, hamai-ka buelta eman, eta konponbide hori grafikoko bihurtu behar dugu.

—Ezagun dakigukeen zure lanen bat?

—Uribe Kostan lan nahikotxo egin dut: lehenengoa Areetan, gero Barrika, Berango eta batez ere Sopelan (turismo gida, etab.) Gauza bitxiren bat? Patxi Lopez eta San Gil ezkontzen zireneko muntaketa, oker ez banago Gazte Abertzaleentzat egin behar izan nuen. Algortan ere banabil lanean, Argia fundazioarentzat.

—Krisiagaz diseinurako prest al daude...

—Ematen du orain dena dagoela geraldian. Irudi-publizitate edo diseinu kontuetan hemen ez dagoenez kultura handirik, hortik egiten dituzte lehenengo murrizketak. Alabaina, nik uste dut krisi momentuetan gauzatu behar direla ekintzak; burua galdu eta geldirik lotu beharrean, ekimenak abiatu. Ni ilusio horregaz nabil. Pena da Bilbo aldean diseinua behar beste ez bultzatzea, nik uste Gipuzkoaren atzetik gabiltzala! Jende oso ona dago hemen, diseinuari balioa ematen ez zaiolako; erakundeek, enpresek diseinua garrantzi bakoa dela uste

«Gura nuke lanak diru truke bakarrik onartu behar ez izatea»

dute, baina ez liokete garrantzirik kendu behar, diseinu xehetasun txikiena erabakigarria izan daiteke.

—Eta zuk zer duzu gogokoen?

—Gogoko ditudan diseinatzaileek lan pertsonala, artistikoagoa dena, eta lan komertziala bateratzen dituzte; asko gustatzen zait hori! Ez dut hori egin gura hasieratik, baina hazi ahala denbora gehiago eskaini gura nioke proiektu pertsonalagoi. Oso gogoko dut, ordenagailuz hainbeste lan egiten den egunotan, zaharkituagoak lotu diren teknikak berreskuratzea; eskuzko lana ordenagailuko lanagaz bateratzea, materialek ere badutelako komunikazio gaitasuna. Gura nuke, denboraren joanean, lanak diru truke bakarrik onartu behar ez izatea, hautatzeko aukera edukitzea. Aukera banu gogokoago nuke kultura munduan behar egitea, giza-elkarteakaz eta. Errazagoa da ideia konpartitzen duzunagaz lan egitea; bezeroa, hartzailea, baina baita zeure burua ere ase behar dituzulako, errazagoa da bezeroaren nahiagaz zu ere bat bazatoz. ○

## Feminarioak

**Lau eztabaida saio** antolatu dituzte Emakumeentzako Jabekuntza Eskolaren baitan

FEMINISMO Y ECOLOGÍA:  
¿UNA ALIANZA CONTRA NATURA?  
24 y 25 de abril

LOS DILEMAS DE LA LUCHA CONTRA  
LA VIOLENCIA HACIA LAS MUJERES  
29 y 30 de mayo

Formadora: DOMINIQUE SAILLARD

HABRÁ SERVICIO DE GUARDERIA



Bariku eta zapatuetan egingo dira saioak, gazteleraz, eta 5 euroko prezioa daukate

**Udal Berdintasun Zerbitzuak**, Emakumeentzako Jabekuntza Eskolaren barruan, gaurkotatzen darian gaien inguruan lau eztabaida saio antolatu ditu otsailean, apirilean eta maiatzean garatuko direnak. Saio guztiak Berdintasuna eta gatazkak konpontzeko alorretan aditua den Dominique Saillardek zuzenduko ditu, eta Udal Berdintasun Zerbitzuko zinegotzi Keltse Eigurenek azaldu legez, ekimenaren helburuak “proposatutako gaien inguruan dauden eztabaidak ezagutaraztea, hausnarketa bultzatzea, iritziak jasotzea eta elkartrukatzea eta ikuspegi feministatik aztertzea dira”. Villamonte kultur

etxean emango diren saioen eztabaidagaiak hauek dira: “Boterea eta partaidetza: Genero begirada bat politikari” (hilak 27 eta 28); “Negarra eta fusilatik haratago: emakumeak bakea eraikitzen” (apirilak 3 eta 4); “Feminismoa eta ekologia: naturaren aurkako aliantza bat?” (apirilak 24 eta 25) eta “Emakumeenganako indarkeriaren aurkako borrokaren dilema” (maiatzak 29 eta 30). Bariku eta zapatuetan egingo diren gaztelerazko saioen prezioa 5 eurokoa da eta izen-ematea Herritarren Arretarako Bulegoetan egin daiteke. ○

Informazio gehiago: 94 466 01 36  
berdintasuna@getxo.net

## GAZTEEI BEGIRAKO ESKAINTZA BERRIA

Getxoko Udal Gazteria Zerbitzuak otsail-ekaina bitartean eskainiko dituen jardueren berri eman du. Eskaintza zabalaren barruan, aurtengo nobedadetat azaldu dituzte etxebizitzaren gaineko hitzaldiak (azkena: hilak 17, 18:00-20:00, Villamonte; gazteleraz) eta “Saren istorioa”, bullyingari eta arrazakeriari buruzko antzerki-foruma (martxoak 14, 17:30-19:30, Hirutasun Santuaren ikastetxea). Horrez gainera, beste ikastaroak eta lantegiak dira esaterako: Kantu ikastaroa (otsail-maiatzako zapatuetan, 11:00-14:00, Andres Isasi Musika Eskola; 15-30 urte; 5 euro); Sukaldaritza: Munduko jakirik zapoetsuenak (martxoko zapatuetan; 11:00-13:00; 18-30 urte; gazteleraz; 5 euro); Mutilentzako sukaldaritza: bizirauten ikasi (maiatzeko barikuetan; 17:00-19:00, Areetako Cordele-ria kalea; gazteleraz, 12-17 urte 5 euro); Neskentzako skate ikastaroa (4, 5, 7, 11, 12 eta 14, 18:00-20:00; Arrigunaga; 8-18 urte; euskaraz, 5 euro) eta surf ikastaroa (ekainak 1-5; 17:00-19:00; Barinatxe; 10-17 urte, euskaraz; 5 euro).

Harremanetarako: 94 466 03 53

## VIII. ABRA SARIA HILAREN 21EAN

ALBEK (Algortako Bertsolari Eskola) antolatzen duen Abra Saria lehiaketa, bertsolari gazteen jarduna sustatzeko txapelketa, hilaren 21ean egingo da, arratsaldeko 07:00etan (lekua erandik zehaztu barik) eta sarrera dohainik izango da.

## ALBERTO LADRON ARANA IRAKURZALEEN TXOKOAN HILAREN 26AN

Alberto Ladron Aranaren Arotzaren eskuak suspense liburua izango dute berbagai Irakurzaleen Txokoko lagunek hilaren 26an (20:00) Aldai Patronatuan (Karitate kalea 1, Algorta). Ohi legez, hitzordura idazlea bera ere gonbidatu dutela jakinarazi dute arduradunek.



**Basurto**  
Algorta S.L.  
altzariak

## LEHEN, ORAIN ETA BETI

- **1970**az geroztik altzariak diseinatzen.
- 300 m<sup>2</sup>ko erakusketa **ZURE ZAIN!**
- **ARMAIRUAK NEURRIRA** egiten ditugu (Telletxe 4)

Telletxe 4 • T: 460 71 62 / Telletxe 15 • T: 460 42 44 • ALGORTA



## [leioa]

Ana Iburguren > Bizarrak fruta-denda

“Bezeroek gustuko dute erakusleioa apaintzea, laguntza eskaintzen digute”

Leioako erakusleioen artean dekorazio onenari saria eman dio Bizkaiko Merkataritza Ganbarak Bizarrak fruta-dendari. Gabonen aitzakiaz antolatu ohi du lehiaketa Ganbarak, XXV.a azken hau. Ana Iburguren ekiten du Bizarrak dekorazioa.

—Bizkaiko Merkataritza Ganbarak eman dizue saria, baina Leioako erakusleio onenari, nolatan?

—Orain arte Leioako Udalaren ordezkariarik ez da joan sariketa honetara, aurten izan da lehen aldia. Bizkaikora beti aurkezten gara eta Leioakora ere aurkezten ginen, baina duela bost urte ez dela egiten. Beno, badirudi aurten barriro hasiko direla antolatzen, baina ez da segurua. Lehiaketa egiten zeneko beste sari bi dauzkagu, eta duela lau urte eman ziguten Bizkaiko bigarren saria, herrialde mailakoa. Hori ez zen inon atera, baina oraingoan aldiz, badirudi jende guztia enteratu dela, sari xumeagoa bada ere.

—Aspaldi daukazue fruta-denda?

—Aste Santuan beteko ditu 23 urte dendak, hamar bat urte daroagu lehiaketetara aurkezten.

—Nolakoa izan da saritutako dekorazioa?

—Zortzi metro luze ditu gure erakusleioak,



Amaia Etorbidearen 22.ean dago Bizarrak frutategia, Pinueta

publikoari begira daukagun fruta guztia bertan dago. Apaintzeko figurak egin genituen poliespanagaz, Txillidaren lanen estilokoak; hots, hutsuneak zituzten figurak eta hutsune horietan sartu ditut frutak.

—Zuk sortutako lana da, zure ideiak?

—Hori da, lehenik pentsatzen dut zer eta nola egin, fabrikatzen dut gero eta asteburu batean muntatzen dugu. Inmakuladaren zubian egin ohi dugu, abenduaren hasieran.

—Eskulanak egitea gustuko duzu?

—Bai, merkatarientzako antolatzen dituzten ikastaro guztietan parte hartzen dut eskulanak egiten ikasteko.

—Bezero gehiago erakartzen dute sariek?

—Ez, egia esan urte asko daroagu auzoan eta jende orok ezagutzen gaitu. Baina bezeroek gustuko dute erakusleioa apaintzea. Urtero datoz ikustera, aste batzuk aurretik dagoeneko galdetzen digute zer egingo dugun eta laguntza eskaintzen digute. Gustuko dute urtero apaintzea egitea. ○

## Badator tranbia!

Aurten **hasiko dira eraikitzen** tranbiaren bidea **metro** geltokiaren eta **EHUren artean**



Udondoko bulebarra zeharkatuko du tranbiak

**Tranbiarentzako** bidea egiten hasiko dira aurten, urte akabueran, Eneko Arruabarrena alkateak eta Eusko Trenbide Sareak baieztatu dutenez. Leioa metro geltokia eta Euskal Herriko Unibertsitateko kanpua lotuko ditu tranbiak; hau da, 3.862 metroko bidea egingo du.

Euskal ingeniariak batek eta Sevillako beste batek osatu dute egitasmoa eta lasater ipiniko ei dute herritarren eskura. Izan ere, aurretik egin beharrekoak egin dituzte dagoeneko. Hau da, ingurumeneko eraginaren ebaluaketa egin dute eta tranbiaren behin-behineko eta behin-betiko ibilbidea onartu dute.

Bederatzi geltoki izango ditu ibilbide-

ak. Udondoko bulebarra eta Sabino Arana kalea zeharkatuko ditu; geraleku bi egingo dituzte Sabino Aranan. Ondoren Udalexerako bidea hartuko du ibilbideak, handik Sarriena biribilguneraino iritsiko da, Askartza Claret ikastetxerantz joko du gero eta EHUko kanpusean amaituko da. Beste geltoki bi edukiko ditu han ere. Hamabi minutu inguru iraungo du bidaia osoak, lehenengo geralekutik azkenera bitartean. Ibilbide osoak karril bi izango ditu, norabide bakoitzeko bat. Guztira hogeit hamar milioi euro inguru inbertituko dute egitasmoan.

Bestalde, olatudun igerilekua eraikitzeke lanei ere 2009an ekingo dietela iragarri du Arruabarrenak. ○

### PATRUILAK INDARTUKO DITU UDALTZAINGOAK ETA OINEZ EGINGO DITU

Patruila bi edukiko dituzte turno bakoitzean udaltzainek; goizez, arratsalde zehar gauz. Udaltzainak erabaki duenez, beste sei udaltzain edukiko ditu Leioa; hau da, 30etik 36ra igoko du kopurua. Horri esker eduki ahal izango dute patruila bi aldi berean eta turno guztietan. Gainera, oinez egingo dituzte. Udaltzain gehiago egongo direnez, pertsonal-gastuak %12,2 igoko dira iazkoak alderatuta.

### IKEAKO HAUR ESKOLAN IZENA EMAN DAITEKE

Datorren ikasturterako izena emateko epea zabaldu du Ikea kaleko haur eskolak, otsailaren 27a baino lehen egin daiteke. BBKren Haur Eskola sareko kide da Ikeakoa eta 0-2 urte bitarteko umeak hartzen ditu.

### PSIKOESTIMULAZIO PROGRAMAGAZ

#### JARRAITUKO DU UDALAK

Narriadura kognitibodun pertsonentzako psiko-estimulazio programagaz jarraituko du Udalak. Izan ere, balorazio eta ondorio positiboak eduki ditu gaixoen artean. Iazko uztailaren abiatu zuten egitasmoa, eta arduradunek diotenez, helburu guztiak bete dituzte. “Batetik gaixoen maila kognitiboa hobetzea lortu dute, eta bestetik, gaixoen bizi kalitatea hobetu da”. Guztira hogeita bosna gaixok eta zaintzailek parte hartu du programan.

### LIBURUJATUNEKO GALDERAK PREST DAUDE

Martxoaren 27an amaituko da epea LiburuJatun lehiaketako galderei erantzuteko. Irakurketa jokoa 16 urtetik gorako lagunek parte har dezakete. Galderak ondoko guneetan eskura daitezke: [www.bibliotecaspublicas.es/leioa/](http://www.bibliotecaspublicas.es/leioa/) eta [www.kulturleioa.net](http://www.kulturleioa.net).

**udondo**  
taberna

eguneko menua eta afariak

Lehendakari Agirre,2  
T: 94 463 00 45 - LEIOA

**ERROTULOAK**



ERA GUZTIETAKO  
ERROTULOAK eta  
INPRESIO DIGITALAK  
egiten ditugu

e-mail: [hirustab@euskalnet.net](mailto:hirustab@euskalnet.net)

Iparragirre etord. 90 (Avanzada) • LEIOA • Tfno. 94 480 41 15 Fax: 94 480 41 83



- 0 eta 16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskalduna.
- Ingelera 4 urtetik aurrera.
- Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia (sukaldea bertan), merienda.
- Eskolaz kanpoko ekintzak: musika, gitarra, adierazpena, saskibaloia, eskupilota, panderoa, bertsolaritza, euskal dantzak...
- Frontoia, futbito zelai estaliak, berdeguneak...

Artatza Auzoa 84, LEIOA • Tf: 94.464.23.64 / 94.464.33.07  
e-mail: [leioa@ikastola.net](mailto:leioa@ikastola.net) • [www.ikastola.net/ikasweb/leioa](http://www.ikastola.net/ikasweb/leioa)



## [erandio]

Ines Espinosa > Alzagako auzokide desalojatua

“Enpresa eraikitzaileak porrot egin duela deklaratzeko beldur gara, urduri eta arduratuta gaude”

**Pitzadurak agertzen hasi ziren beraien etxeetan eta okertzen hasi ziren, ondoan eraikitzen zebiltzan etxeetako lanen eraginez. Egun batetik bestera irten behar izan zuten handik. Ines Espinosa da beraietako bat.**

—Udaleko Osoko Bilkuan eskatu duzue zuen egoera konpontzeko, noiztik dator arazoa eta zertan dago gaur egun?

—Duela hiru urte hasi ginen kexak jartzen gure etxeek pitzadurak zituztelako eta mugitzen zirelako. Orain urte bi eta erdi hasi ziren husteak eta beste etxe batzuetan realojatu gintuzten. Bertan jarraitzen dugu eta konponketa ez dugu bistaritzen. Udalak operazioaren buruzagitz hartu zuen, oso ondo dagokigu, garrantzitsua da, higiezin merkatuaren egoera zertan dagoen eta enpresa eraikitzaileak egoera ekonomiko txarrean daudela ikusita. Baina, era berean, oso astiro doa dena burokraziaren ondorioz.

—Udalak esku har dezake orduan?

—Berak hartutako konpromisoa gogorazteko joan ginen Osoko Bilkurara. Zalantza asko dauzkagu beraien kudeaketa gaitasunaz. Oso arduratuta gaude enpresa eraikitzaileek porrot egiten dutelako eta gure egoerak erantzunik ez daukalako. Oraingo etxetan okupak gara, babestuko gintuzkeen inolako agiririk gabe.



San Agustin kaleko 4.ean bizi zen Ines Espinosa

—Hark dioenez, beste etxe bat emango dizute familia bakoitzari, ezta?

—Baina ez dago horretarako denborarik finkatuta, ez dago inongo agiritan jasota, ez daukagu eraikitzaileen sinadurarik. Kostua beraiak hartu behar dute bere gain eta ez Udalak, eta Udalaren hitza baino ez dugu.

—Guztiak zaudete egoera berean?

—Batzuk hipoteka ordaintzen dabilta eta ez daukate hondarrak besterik. Orotara 66 familia gara zuzenean kalteak eta portal bitan oraindino han bizi dira, etxea apunta-

latuta edo 40 zentimetro okertuta. Baina beste askok ere pairatzen dituzte ondorioak.

—Arduratuta zer gerta daitekeen, beraz?

—Abaroa enpresa eraikitzaileak porrot egin duela deklaratzearen beldur gara, bera da-eta egoeraren errudun. Etxe batzuk eraiki zituzten eta horren ondorioz hasi ziren mugitzen gureak. Eraikitakoak saldu barik, gureak horien ordezkari izateko esperantza geneukan, baina dagoeneko ez dira Abaroarenak; bankua geratu da etxeakaz enpresaren zorraren truke. Urduri eta arduratuta gaude. ○

## Hormigoari kolore apur bat

Erandioko metro geltokiko zabalgunea herritarren topaleku gisa atonduko dute



Hormigoizko 16.300 metro koadro inguratzen du Alzagako metro geltokia

**Herritarren bilgunerako** atonduko dute Alzaga auzoko metro geltokiko zabalgunea. Hormigoizkoa da eta 16.300 metro koadro neurtzen du; hotza eta grisa. Horregatik barrutuko dute. Zola aldatuko diote, zati batzuetan egurra eta besteetan lauzak jarriko dituzte, eta “inguruneagaz bat datorren diseinuko” eserlekuak, zein paperontziak kokatuko dituzte, Udaletik jakinarazi dutenez. Jardinera handiak eta kale-argi gehiago ere ipiniko dituzte. Herriaren erdigunean dagoen “zonaldea berreskuratzeke helburua” dauka Udalak, “herritarrek aisialdinako topaleku gisa goza dezaten”.

Lanak 4,2 milioi euroko aurrekontua daukate. Espainiako gobernuaren diru-

guntza inbertituko dute; izan ere, Udalek bultzatzen dituzten lan publikoak egitera bideratuta daude.

Hainbat baldintza dakartza diru-laguntza horrek. Besteak beste, egitera doazen obran lana eman behar diete herriko langabei. Hasierako egitasmoak aurrekontu handiagoko eskatzen zuten, baina Udaletik adierazi dutenez, “Espainiako gobernuaren dekretuagaz bat egin dezan egokitu dugu”.

Erandioztarrek askotan eskatu dute zabalgunea konpontzeko eta Udalaren hainbat aurrekontutan gorde dute lan horrentzako diru-partida zehatza, baina ez dituzte lanak gauzatu. Azkenean, jarduera-plana amaitzeko lanean dabilta udal-teknikariak. ○

## MERKATARITZA SUSPERTZEKO II. PLANA OSATZEN DABILTA

Aditu-talde bat hasi da prestatzen herriko Merkataritza Suspertzeko II. Plana. Alorraren benetako egoeraz jabetzeko helburua daukate, herriko ekonomia-eragileetako bat da eta. Ostalaritza sektoreko establezimenduak ere sartu dituzte oraingo ikerketan, eta hiru hilabete barru prest edukiko dituzte ondorioak. Hainbat jardura proposatuko dituzte horiekaz, herri-merkatariak suspertzeko helburuak eta ekimenak zehaztuz.

## PASABIDE PLAKAK BARRITUKO DITUZTE ETA BATZUK DOAN EMAN

Ibilgailuen pasabide guztiak arautzeko plakak doan banatuko ditu Udalak hilabete honetan, 300 pare. Beraz, horien bila joan beharko dute lonja eta garaje partikular, zein kolektibo jabeek. Hainbat baldintza bete beharko dute plakak edukitzera behartuta daudenek: jabetza egiaztatzen duten jatorrizko eskriturak, espaloia okupatzearen dagokien udal tasaren ordainketa eguneratua izatea eta harremanetarako telefono zenbakia ematea. Aurrerantzean, ordea, plakak hondatzen direnean, jabeek eurek ordaindu beharko dituzte barriak.

## BEHARGINTZAREN KANPAINA HERRIKO ENPRESEI BEGIRA

Herriko enpresei zerbitzua eskaintzeko kanpaina abiatu du Erandioko Behargintzak. Besteak beste, enpresa bakoitzak jaso ditzakeen laguntzei buruzko informazioa eskaini diezaieke, enpresaren diagnostia egin dezake; herriko ekonomia eta lan egoeragaz batera, edota enpresen eta langabeen artean bitartekotza lana egin dezake. Enpresa barriei eta langile autonomoei ere lagundu gura die.

Zure publizitatea hemen  
Zure publizitatea hemen  
Zure publizitatea hemen

94 491 13 37



### Basolanak

- Zuhaitzen landaketa
- Podak
- Itxierak
- Garbiketak
- Tratamendu fitosanitarioak

Lorategien zainketa  
**DEITU!**

T. 94 467 17 13

F. 94 467 42 41

ERANDIO (Bizkaia)

Mobila

Asier: 629 411 838

e-posta: basolanak@terra.es

Nahi duzun lekura iristeko arazoak dituzu?



Etxebizitarako igogailuak  
Eskailera igogailuak  
Plataformak

Arazoei agur... **902 54 08 54**



www.arlan.biz



## GAUETARAKO ERE UDALZAINGO ZERBITZUA ESKATU DU EZKER BATUAK

Udaltzaingo zerbitzua gauez ere egon dadila eskatu du Ezker Batua udal-taldeak, berehala ezar dezatela gainera: "azken hileotan lapurretek eta ekintza biolentoek gora egin dutelako, komertzioen eta hiri-altzarien aurka". Ezker Batuaren iritziz ezin daiteke itxaron Udaltzain gehiago jartzeko prozesua amaitu arte gaueko zerbitzua ezartzeko. Aurtengo udan aurreikusi dute prozesu honegaz amaitzea. "Dauden langileakaz eta lan poltsagaz ezar liteke dagoeneko", dio EBk.

## MARGO LEHIAKETA ABIATU DU DAGOENKO ITZARTU TALDEAK

Zazpigarren margo lehiaketa egiten dabil Itzartu emakumeen taldea. Sopelan bizi diren 18 urtetik gorako emakumeek parte hartu ahal izango dute oraingoan. Bakoitzak lan bat edo bi aurkez dezake, martxoaren 2tik 4ra eta Udaleko Hall Kulturalen; beti ere (Goizez 12:00etatik 13:30era, eta arratsalde, 18:00etatik 20:30era). Lanen gaiak askeak izango dira. Olio-pinturan edo akuarelan eginak, 45x55 edota 80x100 bitarteko neurrietan aurkeztu beharko dituzte parte hartzaileek. Kartazal baten barruan atxiki beharko dituzte, era berean, egilearen izen-abizenak eta telefono zenbakia. Irabazleen izenak Emakumearen Aste Kulturalaren barruan jakinaraziko dituzte, martxoaren 5ean, 18:00etatik aurrera eta Hall Kulturalen. Hainbat sari eskura daiteke. Irabazleak 375 euro jasoko du eta bigarrenak 275 euro. Hori bai, saria jasotzeko, lanaren egilea (edo haren ordekoa) bertan azaldu beharko da, saria baliogabe geratuko da. Saritutako lanak Itzartu Elkartearen eskuetan geratuko dira, horiek argitaratzeko eskubidea izango du. Gainerakoak, ordea, emaitza jakinarazi eta biharamunean jaso ahal izango dituzte egileek, 12:00etatik 13:30era.

## Palestinagaz bat

Udalak Gazako sarraskia salatu du eta erasoaren aurka azaltzeko eskatu die EBri eta NBERi



Urtarrileko Osoko Bilkuran hartu zuten erabakia

**Israelek** Palestinari egindako eraso salatzea adostu zuen Sopelako Osoko Bilkurak urtarrilean, "Gazan zibilei egindako sarraskia". Alderdi guztiek bozkatu zuten mozioaren alde, PPK izan ezik. Testu berean Israelen erasoaren aurka argi azal daitezela eskatu zioten Europar Batasunari eta Nazio Batuen Erakundeari. Baina ez ziren horretara mugatu. Israelekiko harremanak apurtzeko ere eskatu zioten nazioarteari.

Era berean, indarkeriagaz amaitzeko eskatu zuten eta elkarrizketa aldarrikatu. Gonzalo Garcia Martin EAJko udal-tal-

deko eledunak salatu zituen "Israelgo estatuak hartutako erabaki eta neurriak, baita Palestinako miliziak egindako erasoak ere. Bi aldeek erabaki dute gatazka bat konpontzeko biderik txarrena hartzea, armen bidea". Haren iritziz, "elkarrizketaren aukera ez da bakarrik egokia Erdialdeko Ekialderako".

Mozioa onartzeaz gain beste proposamen bat egin zuten jeltzaleek. Euskal Fondoari 3.000 euroko diru laguntza emateko eskatzea proposatu zuen batek, tokiko hedabideen bidez herritarren mobilizazioa sustatzeko bestetik. ○

## Sopelazale gehiago

Bisitarien kopurua handituz doa, 2007an baino 600 turista gehiago etorri zen iaz



Hondartza zabal eta luzeek ekartzen dituzte bisitariak Sopelara

**Surfagaz** lotuta dagoela ez da mitoa Sopelan, hala ematen du behintzat turismoari kasu eginez gero. Hobeto esanda, turistentzako herriko arreta guneei erreparatu gero. Orain aste batzuk jakin dugu 2008an 8.591 kontsulta jaso dituztela gune horiek, hots, 2007an baino ia 600 gehiago.

Zehazki, Udaltzako Turismo Bulegoak 5.022 pertsonari eskaini zion arreta, eta Larrabasterra auzoko Informazio Puntuak, 3.569 laguni, Turismo arlotik jakinarazi dutenez. Ez dakigu bulegoen bisitarien kopurua igotzearen arrazoia zein den. Hau da, izan liteke Sopela bisitatu duen pertsona kopurua igo dela, edota turismo arreta zerbitzua erabiltzeko gero eta ohitura handiagoa daukatela sopeloztarrek, zein kanpotik iritsitako bisitariak. Hala eta guztiz ere, ez da marka txarra!

Bisitari motari dagokionez, generoen arteko bereizitasunik ez dela egon esan du Udalak; 4.327 gizonetako eta 4.264 emakumezko hurbildu da turismo bulegoetara. Adinaren arabera, ordea, egon badago

bereizitasun nabaririk; helduek egin zituzten kontsultarik gehien 2008an, 3.753 hain zuzen ere. Gazteek egin zituzten ondoren kontsulta gehien, 3.013 lagunek, eta umeek eta nagusiek egin zituzten gutxien, 1.095 eta 730, hurrenez hurren.

Jatorriari dagokionez, barriz, sopeloztarrek egin zituzten kontsultarik gehien, 3.480, eta bizkaitarrek ondoren. Araba eta Gipuzkoatik iritsi ziren 2.913 bisitari, baina gainontzeko euskal herrialdeen daturik ez du jakinarazi Udalak. Era berean, 1.578

### Hondartza, ibilbide eta herrian egiteko jardueri buruz galdetu zuten

atzeritar hurbildu zen turismo bulegoetara, frantziar estatukoak eta Erresuma Batukoak, Kataluniakoak eta Madrilgoak batik bat.

Kontsulta gehienak udalerritari buruzkoak izan ziren: herriaren informazioa eskatu zuten, hondartza, ibilbide zein herrian egin daitezkeen jardueri buruzkoak. ○

## DIDAK HAMILTON IDIOMAS

### Ingelesa, Frantsesa eta Alemana

- Taldeak, enpresak eta partikularrak
  - Eskolaz kanpoko ekintzak
    - Maila guztiak
  - Ingelesa 3 urtetik aurrera
    - Talde txikiak
  - Ingalaterran egonaldiak

Dr. Landa, 6 eta Iberre, 9 / 48600 Sopela.  
Tel: 94 676 30 12  
info@didakhamilton.com

## 4 bide pinturak



RIPOLIN  
BONDEX  
DYRUP

Loroño 2 • Tlf/Fax 94 676 29 92 • SOPELA  
Iturribarria 3 • Tlf: 94 442 01 55 • BILBO

## ANDER DEVNA IKASTOLA

- Hezkuntza integrala urte 1etik 18ra artekoa
- Irakaskuntza eta hezkuntza
- Informazioa eta partaidetza
- Eleaniztasuna
- Esperientzia eta berrikuntza

Gatzarrine z/g. SOPELANA  
Tfnoa.: 94 676 02 66  
Email.: sopela@ikastola.net

**LAIKAK Taberna**

Bentatxu, 2  
48600 Sopela  
Tlf. 94 676 03 28

## Egunkariak prentsa eta aldizkariak

nahi izanez gero,  
etxera eramaten dizugu  
egunkaria!!!

Algortako etorbidea, 78  
T.: 94 491 27 34



## HILERRIRAKO SARBIDEA ATONDU DUTE

Amaitu dituzte dagoeneko hilerrirako sarbidea hobetzeko lanak, duela aste bi, hain zuzen ere. Sarrerak hobetu eta asfaltatu egin dituzte, errazagoa izan dadin hilerrira hurbiltzea. Guztira 40.000 euro gastatu ditu Udalak lanok egiteko.

## OTSAILAREN 16AN, MAITASUN GUTUNEN LEHIAKETAREN SARIAK

San Balentin eguna aitzakia hartu eta III. Maitasun Gutunen Lehiaketa egin dute Berangoeta eta Santa Anako Kultur Etxeek. Egunotan dira banatzekoak sariak, hilaren 16an. Irabazleen gutunak irakurriko dituzte sariak emateaz batera, umorezko ekitaldi batez, 19:00etan.

## LUNADARA ESKIATZERA HILAREN 28AN

Eskiatzera joateko irteera "familiarra" prestatu dute Kultur Etxeek otsailaren 28rako, Lunadara joango dira. Familia guztiari eta 1999 eta 2005 urteen artean jaiotako umei zuzenduta dago ekimena. Joan gura duten lagunek otsailaren 23a baino lehen eman beharko dute izena Berangoetan edo Santa Anan. Berangon erroldatuta daudenek 5 euro ordaindu beharko dute, eta Berangotik kanpora erroldatuta daudenek, 9 euro. Irteera 09:00etan izango da eta itzulera, 19:00etan, Berangoeta Kultur Etxean.

**Turikaldoi**

JOKIN GARATE BAYO Neguriko Etorbidea 9 T: 491 14 87 48990 NEGURI  
KIMETZ GARATE AZURMENDI Aingeruaren etorb. 4B (sarrera, Jata Mendia) T: 460 01 87 48990 GETXO

## Atara mozorroa!

Hilaren 21ean hurbildu **inauteriak ospatzera**, mozorroa **prestatu** atzean lotu orduko



Umeek ludotekan presta ditzakete mozorroak, astelehenetik ostiralera

**Pailazoak**, indiarak, heroiak, printzeak eta printzesak, animaliak, betiko pertsonaiak, sorginak... Denek hartuko dituzte herriko kaleak datorren zapatuan, otsailaren 21ean. Baina egon lasai, inauteriak dira eta!

Goizean ekingo diete ekitaldiei, umeentzako ludotekagaz. Mozorroa egun horretan bertan egin ahal izango dute atzeratu dabilzanek, 11:00etatik 13:30era. Halere, herriko Kultur Etxeetako ludoteketan hila-bete osoa dabilza egiten tailer bereziak, umeek beraien eskuez egin ditzaten mozorroak; astelehenetik ostiralera.

Arrastian iritsiko da ospakizunaren un-

rik garrantzitsuen, kuadrilen jaitsieragaz. Berangoetatik abiatuko da 18:30ean frontoirako bidean, batukada, zanko eta malabaren laguntzaz. Bertan parte hartu gura dutenek Kultur Etxeetan eman dezakete izena hilaren 19ra arte. Parte hartzaile guztiak emango dizkiete goxokiak, eta mozorrorik onenak daramatenek, sariak eskuratuko dituzte.

Gauagaz batera iritsiko da musika eta dantza, eguna giro onean amaitzeko aitzakiarik onena izango da eta frontoiko guateka, Dj-aren laguntzaz, 20:00etan. Anima zaitetz, jantzi mozorroa eta zoaz gozatzera! ○

## Plentziako Gazte Asanblada > 1. Inauteri Alternatiboak

“Etxebizitzaren gaia aukeratu dugu, gure arazo nagusietakoa delako”



Plentziako Gazte Asanbladako lagunak

**Orain lau urte** jarri zuten martxan Plentziako Gazte Asanblada, nahiz eta, azken urtera arte, egindako lanak ez duen oihartzun handirik izan. Aurten, ospakizuna eta aldarrikapena nahastuz, *1. Inauteri Alternatiboak* antolatu dituzte. Joan den urtean Udalak antolatu zituen inauteri ekintzetan, jende nahiko batu zen; hori ikusita, ekimen indartsua martxan jartzea erabaki zuten Plentziako gazteek. Etxebizitza da martxoaren 7an Jai Alai pilotalekuan egingo duten ospakizunerako aukeratu duten gaia: “Gazteok dugun arazo larrienetakoa dela uste dugu”. Hala ere, gai hori ez dute inauterietan bakarrik landuko: “Datuak batzen ari gara Plentziako etxebizitzaren egoerari buruz. Honen inguruan hausnartu ostean, salaketa kanpaina abiatu gura dugu. Hasiere batean, inauteriak etxebizitzaren kanpaina biribiltzeko erabilteza pentsatu genuen; baina, etxebizitzarena luzerako arazoa izango dela ikusita, kanpainagaz jarrai-

tzea erabaki dugu”.

Goizeko 12etan txupinazoagaz hasiko dira *Inauteri Alternatiboak*. Ondoren, Elektrotuna, bazkaria, euskaraokea, antzerkia, kalejira erreibindikatiboa eta kontzertuak izango dira. Azken horiek, zeintzuk izango diren zehazteko dago oraindik. Izan ere, hasiera batean otsailaren 28an izango zen jai; baina, hauteskundeak direla eta,

**«Martxoaren 7an izango da ospakizuna, Jai Alai Pilotalekuan»**

data aldatu behar izan dute, horrek, egitaraua aldatzera behartu ditu. Dena den, sorpresa bat izan daitekeela aurreratu digute: “Talde ezagun baten erantzunaren zain gaude”. Herriko zein inguruko gazteak inauterietan parte hartzea animatu gura dituzte Gazte Asanbladatik. ○

Informazio gehiago: [plentziakogazteasanblada.blogspot.com](http://plentziakogazteasanblada.blogspot.com)



**TXIBERRI**  
edantokia  
frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ  
T: 94 676 07 15

**BASTARTENA**  
URDULIZ  
Teléfono: 946 761 128


Ajuria  
taberna

Andrés Cortina 2

ALGORTA



**Taberna Berri**  
Sarrikobaso 4 -ALGORTA  
Tf.: 944 306 493



**VIEJO CAFE**

kopak eta giro jatorra

Alangobarri, 4 Tel. 94 460 30 03  
ALGORTA

## AIXERROTA BHI

24 URTE EUSKARAZ IRAKASTEN

• TEKNOLOGIKOA  
BATXILERGOAK • NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK  
• GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK  
DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA (DBH) B ETA D EREDUAK  
ZEREGINAK IKASTEKO GELA (A ETA D EREDUAK)

INFORMAZIO GEHIAGO: [WWW.AIXERROTABHI.NET](http://WWW.AIXERROTABHI.NET) / 94 491 17 86





## INAUSKETA HONDAKINAK JASOTZEKO GUNEA

Urdulizko Udalak, inausketa hondakinak jasotzeko gunea sortu barri du Mendiondo auzoan, harrobiaren parean. Etxeko zuhaitzak edo zuhaixkak moztu ditzuzten herriko bizilagunek, bertara eroan ahal izango dituzte soberakinak. Hurbildu aurretik, 94 676 20 61 telefonora deitu beharko dute zerbitzuaren erabiltzaileek, data eta ordua zehatzeko.

## MANKOMUNITATEKO INAUTERI MITOLOGIKOAK

Uribe Kostako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak Euskal Inauteriei, zein mitologiari lotutako hainbat ekintza antolatu gura izan du, Uribe Kostan ere Euskal Inauteri tradizionalak sustatzeko asmoz. Hilaren 16tik aurrera, mozturro tailerrak antolatu dituzte Lemoiz, Sopela, Gorliz eta Urdulizen. 25ean, Euskal Inauteriei buruzko hitzaldi-diaporama egongo da Sopelako Hall kulturalen. 28an, mozturro desfilea eta sari banaketa egingo dute Urdulizko probalekuan, arratsaldeko 18:00etan.

## ERTZAIN ETXEA ZABALTZEAR PLENTZIAN

Egokitze lanak orain dela sei hilabete baino gehiago amaitu baziren ere, oraindik ez dute zabaldu Plentziako Udalaren beheko solairuko Ertzain Etxea. Silvia Lopez de Gereñu alkatearen ustez, premiazkoa da hori zabaltea, herriko segurtasun sentsazioa hobetu ahal izateko.

## BARRIKA

### Azpiegitura barriak Barrikako bizilagunentzat



Elejalde inguruan eraikiko dute Zahar Etxe barria

**Hazten** doan herria da Barrika. 2009an azpiegitura barri bi egiten hasiko dira. Alde batetik, Estatutik jasotako diru poltsagaz, Zaharren Egoitza eraikiko du Udalak. Guztira, 300 metro koadro izango ditu eta 248.669 euro inbertituko dituzte. Elejalde inguruan egongo da kokatuta, Medikuaren kontsultaren ondoan. Solairu bakarria izango du; horretan, egongela, kafetegia, bulegoa, gela balioanizta, egokitutako komunak eta aisialdirako gela izango dituzte erabiltzaileek. Gainera, 40 metro koadroko terraza

eta 100 metro koadroko lorategia izango ditu.

Bestalde, minusbaliotasun psikikoak dituztenen alde behar egiten duen Uribe Kosta Elkartek, 30 pertsonentzako lekua izango duen zentro barria zabalduko du Barrikan. Getxoko Andra Mari eta Neguri auzoetan eta Leioan hiru zentro ditu elkarrekin. Horietan, adinen eta beharren arabera antolatuta daude ia 200 erabiltzaileak. Azpiegitura barriak, Leioan dauden lagunak berrantolatzeko aukera emango du. ◊

# Ots. 16 - Mar. 02

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: [agendauk@aldizkaria.biz](mailto:agendauk@aldizkaria.biz) • Tel: 94 491 13 37

## ERAKUSKETAK

### GETXO

► **Dora Salazarren eskulturak eta Jorge Garciaren margolanak.** Erromoko erakustaretoan, otsailaren 20tik martxoaren 14ra arte. Astegunetan, 11:00etatik 13:00etara eta 18:00etatik 21:00etara; eta zapatuetan 11:00etatik 13:00etara.

► **Arte Ederretako irakasleen lanak.** Otsailaren 21era arte, 10:00etatik 13:00etara, Algortako erakustaretoan.

► **Irune Alfageme Ayalaren olio-pinturak eta akrilikokoak.** Otsailaren 23tik martxoaren 7ra arte. Astegunetan, 11:00etatik 13:00etara eta 18:00etatik 21:00etara; eta zapatuetan 11:00etatik 13:00etara.

### PLENTZIA

► **Luis de la Rica Ormazabal margolanak.** Otsailaren 23ra arte.

### LEIOA

► **Basoaren azala.** Otsailaren 22ra arte, Kultur Leioako erakusketa aretoan.

### BERANGO

► **Preciados, Joserra Atxutegiren argazkiak.** Otsailaren 28ra arte.

## MUSIKA

### BERANGO

► **Dantzaldi herrikoa.** Otsailaren 20an 19:00etan, Iñaki Uribesalgoren dantza taldeak girota. Nagusien Etxeak antolatuta.

### ERANDIO

► **Dantzaldi ibiltaria.** Otsailaren 19an 21:00etan, Altzagako azokan.

► **Uztargi Dantza Taldea.** Otsailaren 28an, Altzagako azokan.

Izenik Ez taldearen aspaldiko argazkia, lehenengo partaideak

► **Musika**

**Izenik Ez taldearen XV. urteurrena**

Etxean ospatu gura eta lortu du Erromoko Izenik Ez talde beteranoak. Dagoeneko 15 urte dira plazaz plaza eta taulaz taula kontzertuak eskainiz, eta merezitako moduan ospatuko dituzte. Itzubaltzeta Gaztetxean eskainiko dute kontzertua otsailaren 28an, bere entsegu lokalaren ondo-ondoan. Eta ez dira bakarrik egongo, ez dituzte bazterean utziko lagunek, beraiekaz joko baitu Alproja taldeak; Larrabetzuko Hori Bai gaztetxean eman kontzertuaren bigarren zatia eskainiko dute. Sarrerak 3 eurokoa izango da eta dirua Itzubaltzeta gaztetxeari autogestionatzen laguntzeko baliatuko dute.

• **Non:** Itzubaltzeta Gaztetxean • **Noiz:** Otsailaren 28an

### LEIOA

► **Pedro Guerra.** Otsailaren 27an 21:00etan, Kultur Leioako Auditoriumen. 20 euro.

► **IX. Pop-Rock lehiaketaren harira.** Maketak edo CDak jasotzeko azken eguna: otsailaren 27a.

## ZINEMA

### GORLIZ

► **Ahatexo itsusia eta ni.** Otsailaren 22an, 17:00etan, erakusgelan.

### URDULIZ

► **Australia.** Otsailaren 21ean, 20:15ean, 3 euro.

## ANTZERKIA

### GORLIZ

► **Ipuin kontalaria: Beatriz Egizabal.** Otsailaren 28an, 18:30ean, Ikastetxean.

### URDULIZ

► **Ipuin kontalaria.** Otsailaren 27an eta 18:00etan.

### LEIOA

► **Kanpaiak jo bitartean, Glu-glu taldea. AEKK antolatuta, Korrikaren baitan.** Otsailaren 26an 20:00etan, Kultur Leioan. 5 euro.

► **El gato manchado y la golondrina Sinhá, El Retablo Teatro de Títeres taldea.** Otsailaren 22an, 12:00etan, Kultur leioako Auditoriumen. 4 euro.

## BESTEAK

### PLENTZIA

► **Patinaje ikastaroa.** Martxotik ekainera, eguaztenetan. Izena emateko: Goñi Portalen, otsailaren 23a baino lehen.

► **Txalaparta ikastaroa.** Martxotik ekainera, zapatuetan. Izena emateko: Goñi Portalen.

► **Hitzaldia: Feng Shui filosofia.** Otsailaren 20an, 18:00etan, Goñi Portalen. Doan.

### BARRIKA

► **Tostada lehiaketa.** Otsailaren 23an, 17:00etan. Aurkezpena, epai-mahaia, sariak eta dastaketa.

### BERANGO

► **Paper Ckaft-Star Wars tailerra.** Otsailaren 22an, Gaztelekun.

► **Flamenko kutxa ikastaroa.** Otsailaren 23tik 26ra, Gaztelekun.

### ERANDIO

► **Dantza espresiboa ikastaroa.** Martxoan zehar Bekoa ikastetxean. Izen-ematea otsailaren 23a baino lehen.

### GETXO

► **Bertsolariak, VIII. Abra saria.** Otsailaren 21ean, 19:00etan, lekua zehazteke.

### GORLIZ

► **Tostada txapelketa.** Otsailaren 22an 13:00etan, Iberrebarrin.

# aldai

TAPIZTEGIA  
DEKORAZIOA  
ERAKUSKETA  
ETA TAIERRAK

Basagoiti etorbidea 32  
Tf: 460 90 31  
48990 ALGORTA

# VASA



KLIMATIZAZIO

INGENIARITZA

INSTALAZIOA

MANTENIMENDUA

Otxandategi tar Simon 114

48640 Berango, Bizkaia

Tel. 94 668 15 51

Faxa. 94 66829 92

e-mail: [vasa@vasa.biz](mailto:vasa@vasa.biz)



# ADITUAK GARA PINTXO ETA BOKATA BEROETAN!!!!

BASAGOITI ETORBIDEA 51  
ALGORTA





[albuma]



# Agedari kantari

Ohiturak eta usadioak gordetzea garrantzitsua da. Ohitura paganoak suspertu beharra dago denboran iraun dezaten. Agedaren egunaren bezperan lurra kolpatu ohi dugu makilakaz, natura eta lurra esnarazteko. Ageda santu egin zuen elizak, ordea, ohitura paganoak hartuz eta elizkoi eginez. Halere, ohitura zaharrei jarraitu ohi diote milaka lagunek, makila kolpatuz eta Agedari abestuz.

Argazkiak: **Ane Basagoiti**







## Tranbia Getxon

Gauza modernoa omen da gurean tranbia edukitzea. Bilbo izan ei zen aitzindaria, Gasteiz ondorengoa. Baina zaharra baino zaharragoa da tranbia, baita hemen ere. Getxoko tranbiaren argazkia duzu honakoa, aspaldikoa, baina ez dugu uste modernotasunaren ikurtzat zutenik garaiko getxoztarrek. XXI. mendearen modari jarraituz, ordea, laster hasiko dira eraikitzen tranbia gure eskualdean bertan, Leioan. Garai hartako aztarna barriak ote?



[berbetan]

Perrexila legez, saltsa askotan sartuta ibili ohi da Aizpea Goenaga donostiarra (1959). Aktorea, gidoigilea, zuzendaria... denetarik egiten du eta alor guztietan: telebista, irratia, antzerkia, prentsa eta zinean. Saltsa artean dabil azken lanean ere, lapiko artean hobeto esanda, *Sukalde kontuak* pelikula zuzendu berri du eta. Sari batzuk ere eskuratu ditu eta Max sarietarako hautatu dute. Beka bat ere eman diote zinerako gidoi bat idazteko. Norberaren proiektua aukeratu izanak ilusio handia ematen duela aitortu du. Beste antzezlan bat idazten eta pelikula muntatzen dabilaldi berean; beti lanean, hara eta hona, saltsa guztietatik xurgatuz.

# Aizpea Goenaga

## Saltsa barrietan

Testua: **Zuberoa Iturburu** / Argazkia: **Walter Kruse**

—Zinerako zuzendu duzun lehenengo filma da *Sukalde kontuak*, ezta?

—Zinerako zuzendu dudan lehena da, bai. Aurretik *TV Movie* bat zuzendu nuen, telebistarako pelikula; baina zinerako hau izan da lehenengoa.

—Horrelako erronka bati heltzeko gogoa ei zenuen.

—Bai, dudarik gabe. Horrelako aukera, beno, beno... gogo handia neukan, eta egia esan, oso esperientzia polita izan da. Lan talde oso ona eduki dut, jendeak gogoz heldu dio istorio honi; oso bere egin dute bai aktoreek, bai teknikariek. Banituen Espainia alde guztietako teknikariak eta oso gogotsu hartu dute eta ekin diote proiektuari, oso bere egin dute. Oso inportantea zen hori neurri handi batean eta igarri egin da errodatzean. Oso gustura lan egin dugu, oso pozik nago. Ezin dut besterik esan, eta ez da kontua puztutzeko, egia borobila da.

—Beldurrez omen zenbiltzan errodatzen hasi aurretik...

—Lan berria eskuartean duzunean, nahiz

eta lan hori ezagutu, gehiago edo gutxiago, baina beste erronka bati heltzean, eta gainera gure ofizioan beti aztertzen zaituzte; edozein lani heldu aurretik beldurra ez, panikoa sartzen zaizu. Ez dakizu nola joango den, zer gertatuko den... Beldurra ezjakintasunak dakar, kontrol ezak; nola kontrolatuko dut horrelako proiektu bat? Ezinezkoa da. Orduan, beldurra naturala, eta neurri batean, sana iruditzen zait. Bestela, dezerebratua nintzateke.

—Komedia bat da, komedia oso presente dago zure lanetan?

—Beno, egia esan oso tartekatuta daude

horretan, dramen?

—Ez, nik uste denetik behar dela. Honen aurretik egin nuen espektakulua izan zen *Kalean uso, etxean otso*, tratu txarrei buruz, eta tratu txarrak jasan zituzten emakumeekin. Dantza, ikusentzunezkoekin... ez dut uste hori komedia zenik. Beste proiektu pare batean lanean nengil, gidoian, baina ez zeukaten komediatik ezer. Eta *Sukalde kontuak* izan da hainbeste drama artean, haize pixka bat behar nuelako. Baina ez dut aurretik pentsatzen komedia egin nahi dut edo hori dut gustukoen, ez; momentuaren arabera.

**“Pelikula zuzentzeko gogo handia neukan, taldeak gogoz heldu dio istorioari eta oso bere egin dute”**

komedia eta drama. Ez dut uste komedia hutsa egin dudanik; gehiago esango dizut, uste dut batzuetan dramak eduki duela presentzia handiagoa komediak baino.

—Beraz, erosoan zabiltza erregistro

—Beno, komedia da *Sukalde kontuak*, baina ez omen diozu uko egin egungo gizartearen diruzalekeriaren kritikari.

—Oinarrian hori dago istorio honetan, diruzalekeriaren kontua, gure gizarteak





daukana. Osasuna erosi daitekenaren zera hori daukagu, diruak dauka arrakasta gazteen artean. Asko baloratzen da. Beti estimatu da ondo bizitzeko aukera ematen dizulako, baina neurri batean, bidean utzi ditugu beste balore batzuk. Pelikulan altxorrra topatzen dute, harekin gelditu edo ez dilema horretan... Nire adineko belaunaldiak beste etika bat dauka, berea ez denarekin ezin geratu, nahiko luketen arren. Badago kritika soziala. Azkenean, gertatutako guztiak gertatuta, diruak ematen du zorientasuna eta gauza dramatikoena ere ahaztu egiten dira diruarengatik.

—Maitzean estreinatu behar duzue, zerekin egingo du topo ikusleak?

—Oraintxe ezin dizut esan, montatzen ari naiz eta oraindik ez dakit. Osorik ikusten dudanean jakingo dut zehatzago.

—Buruan daukazuna errodatzen hasi aurretik eta filma bukatu ondoren asko aldatuko da?

—Beti aldatzen da, dudarik gabe. Gidoia idatzi nuenetik, *faktore humanoa* agertzen da, aktore batzuen ahotan jartzen baita gidoia, errodatzeko bost aste daude... baldintza horiek guztiak egiten dute pelikula, ez norberak bakarrik, talde batek egiten du, eta hori kontuan hartzekoa da.

—Telebistan eta antzerkian ere horrela gertatzen da?

—Bai, beti gertatzen da horrela. Prozesu guztia, zuk buruan daukazunetik ateratzen dena, diferente izate horrekin batzuetan lanak galdu egiten du eta besteetan irabazi. Pelikula honetan badakit horrela gertatuko dela, baldintzengatik. Ikusiko dugu nola gelditzen den, oraindik ezin ezer esan, ez baitakit. Materiala ikusten ari naiz, muntatu bitartean, baina ea zertan geratzen den... —Zuzendari ibili zara horietan ere; zerk desberdintzen du pelikula bat?

—Medioa erabat diferentea da, erabiltzen diren osagaiak... Zein alde dago babarrunak eta parrilla sukaldatzearen artean? Parrilla kalean egin behar da, egurra eta ikatza behar dira... Hau da, bakoitzak bere prozesua dauka. Neurri handi batean arte

guztiak, edo nik egiten ditudanek behintzat, badaukate berdintasun bat, istorioak kontatzen direla. Transmisioa da. Nobela batek istorio bat kontatzen edo transmititzen digun bezala, antzezlan batek eta pelikula batek ere bai. Baina formatua edo hori bideratzeko medioa desberdina da; horrekin jokatu behar dugu. Pelikula hau oso diferentea litzateke antzezlan balitz, ez

### “Neurri batean arte guztiak badaukate berdintasun bat, nik egiten ditudanak behintzat; istorio bat kontatzen dute”

luke zerikusirik edukiko, eszenak beste batzuk lirateke, espazio batean edo bitan gertatu beharko litzateke, zuzenean edukiko luke harremana ikusleekin. Horrek ez du esan nahi ezin dela egin, baina erabat diferentea litzateke. Gauza batzuk galduko lirateke eta beste batzuk presentzia handiagoa edukiko lukete, edo alderantziz.

—Beraz, beste erregistro bat deskubritu duzu, gustatu zaizu?

—Bai, bai. Barre egiten nuen, oso nekatuta bukatu bainuen, normala da horrelako edozein lanetan; leher eginda bukatzen duzu eta berriro ez duzula egingo esaten diozu zure buruari, indarririk ez duzulako eta ez dizutelako beste aukerarik emango. Isidoro protagonistak esaten zidan barrez, “*isil zaitez, tentel hori, bihar bertan emango balizute beste pelikula bat zuzentzeko auke-*

### “Sukaldariak Euskal Herriaren izena ezagutarazi dute, zenbat jende datorren euskal sukaldaritza probatzera”

*ra, buru-belarri sartuko zinateke proiektuan*”. Bi segundoz pentsatu eta esan nion baietz, arrazoi zuela.

—Gainera, aitzindari izan zarete filmatzea internet bidez ematen.

—Bai, Enekek egin du lan izugarria. Bi kamara, konexioa... ni zoratu beharrean nenbilen, galdezka zetorkidan eta “*nabi*

*duzuna, nabi duzuna*” esaten nion. Emaizarekin oso pozik daude, lehenengo aldia da esperimendu hau egiten dena eta oso piku altuak eduki ditu ikusle aldetik. Jarraipen oso handia izan du, mundu guztian gainera. Nahiko txundituta gaude. Gainera, *Variety* aldizkarian ere agertu zen...

—Ikusleak sorreratik istorioan sartzeko bidea izan da?

—Esperientzia oso polita izan da, pelikula nola egiten den zuzenean ikustea. Lagun batzuek esaten zidaten filmaziora ez zirela etorriko, baina internetez jarraitzen zutela.

—Zure familiak bazeukan lotura sukaldariarekin; Arzak agertzen da filmean, harreman estua duzu beragaz?

—Ez, estua ez, ezagutzen dut eta iruditzen zait, nola esango nizuke... Batzuetan jendeak sukaldaritza kultura bihurtzen du, neurriz kanpoko kultura. Euskal sukaldariak sekulako arrakasta izan dute nazioartean, oso azkarrak izan dira eta txalo zaparrada merezi dute. Gero jendeak jainkotzat ditu, baina ez dira jainkoak. Sukaldatzen dute gustuko dutelako eta gustu hori transmititu nahi dutelako, asko miresten ditut alde horretatik. Egiten duten lana txundigarria da eta ikasi beharko genuke nola egin

duten. Euskal Herriaren izena ezagutarazi dute, zenbat jende datorren mundu osotik euskal sukaldaria probatzera, nola goratu duten.

—Orain lan hau duzu ogibide, hasi zinean uste zenuen honetaz biziko zinela?

—Uste nuen hobeto biziko nintzela, egia esan (barreak). Hasi nintzenezan jo ta ke

egin nuen antzezpenean, ez nuen pentsatzen zuzenduko nuenik, baina inoiz ez dakizu nondik nora joango zaren.

—Nola oroitzen duzu hasierako garaia?

—Zaila. Politia, baina oraingoa bezalakoa. Ez dira momentu guztiak zoragarriak, ezta txarrak ere. Gauza batzuk samurtasun handiz gogoratzen ditut eta beste batzuk ahaztuta dauzkatzu zorionez, memoria oso txarra daukat eta.

—New Yorken ere ibili zinen antzezpena ikasten, oso desberdina da han egiteko modua eta hemengoa?

—Euskal Herrian bertan egin ditzakezu karrera oso diferenteak. Ofizio berdinean ez dago molde bakarra. Egon zaitezke *Goenkalen* aktore, edo kalean antzerkia egiten, edo zinea baino ez... Hemen ere ez dago lan egiteko modu bakarra. Bi iloba

dauzkatzu mundu honetan eta biak karrera oso diferentea egiten dabilta. Ez dago molde bat, zuk egiten duzun bidea da dagoena.

—Pribilegiatua zara denetarik egiten duzulako alor honetan?

—Ez, kontrakoa da, denetarik egiten dut halabeharrez. Baina bideak elkartzen dira azkenean, jakinminak garamatza.

### “Euskal Herrian bertan egin ditzakezu oso karrera diferenteak, ofizio berean ez dago molde bakarra”

—Euskal Herrian eta euskaraz lan egiten duzulako?

—Ez dut euskaraz soilik lan egiten. Joan den urtean Madrilen ibili nintzen gidoigile. Orain

ere beste proiektu batzuk dauzkatzu, kanpoko jendearekin harremanetan nabil... Ez dago aukera bakarra. Euskaraz lan egitea, lehen izan zitekeen militantzia pertsonala, bai egon behar delako asmo bat euskaraz lan egiteko.

—Beraz, ez zara mundu honegatzu nekatu, zer ematen dizu?

—Batzuetan bai, batzuetan nekatzen naiz noski, aspertu eta nazkatu, denok bezala.

Batez ere egin beharreko gauzekin gertatzen zait. Askotan gustuko nuke askatasun gehiago eduki, baina garbantzuak ez dira zerutik erortzen. o

aldizkaria **etxean**  
jaso nahi baduzu

HARPIDETZA > bete azpiko fitxa eta guri bidali

Izena.....Deiturak.....  
Kalea & zenb.....Herria.....  
e-mail.....Telefonoa.....

Urtero  20 euro  30 euro  50 euro  beste kopuru bat ..... euro  
Kontu zenbakia (20 digito).

□□□□ □□□□ □□ □□□□□□□□□□

UK Uribe Kostako Aldizkaria 171 posta kutxa / 48991 Getxo / uk@aldizkaria.biz / tel.: 94 491 13 37






## Animaliak gara

Peruko argazkilari paregabe baten lanak daukazue orrialdeotan, Cecilia Paredesenak. Berak beti esaten du pertsona baino, animalia izan behar zuela, halaxe sentitzen dela. Gizakia animalia dela eta naturari dagokiola ahaztu du. Paredes bere buruari egindako erretratu berezi hauen bitartez identitate hori berreskuratzen ahalegintzen da.

Argazkiak: **Cecilia Paredes**

















I

# Iñaki Bitxitegia

OMEGA, LONGINES ETA TAGHEUER  
AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte plaza 3 T: 430 23 45  
Telletxe 1 T: 460 27 41

## Algorta

OSABIDE HORTZ?KLINIKA  
Arantza Etxebarria

- Odontologia orokorra
- Ortodontzia
- Periodontzia
- PADI

Bidebarri 27, behe eskuina  
ALGORTA  
94 430 76 96

# GAVRKO



GIZONENTZAKO  
MODA

Telletxe 5  
ALGORTA  
T: 4607084

# María Jesús

ILEAPAINDEGIA ETA EDERGINTZA

Alangobari 10  
T: 4910821  
ALGORTA

HARTU TXANDA

[zinema]

## Zinea euskaraz

**Barton Filmsek** euskaraz ekoiztutako eta bizkoiztutako film andana banatuko du aurten



Munduari bira, doan! filmaren fotograma bat. Informazio gehiago: [www.bartonfilms.com](http://www.bartonfilms.com)

**Bilbon egoitza** duen Barton Films banatzaileak ikasturte hasieran jakinarazi zuen 2008-2009 denboraldirako euskaraz egindako edo euskaratutako filmen aldeko apustua barritzen zuela eta "euskarazko zinea urte osoan programatzea" dutela helburu. Horrez gainera, euskarazko filmak zine areto komertzialetan estreinatze-ko asmoa agertu zuten.

Hala ikasturte hasieratik gaur arte euskarazko hainbat lan banatu dituzte zinema aretoetan, barbarako: *RH+ Sevillako banpiroa* (Antonio Zurera, 2007, Espainia); *Olentzero eta Oparien ordua* (Gorka Sesma, 2008, Euskal Herria); *Perez 2, Gure Sagutxo hori* (Andrés Schae, 2008, Argentina-Espainia); *Winx, Erreinu Galduren Sekretua* (Iginio Straffi, 2007, Italia); eta oraintsu estreinatu duten *Azti Zalantzatia* (Roque Cameselle, 2008, Galizia). Hilaren 6an estreinatu zen *Barriola, San Adriango azeria* (Juanba Berasategi, 2009, Euskal Herria); apirilaren 24an helduko da zinemetara *Munduari bira, doan!*

(Juanjo Elordi, 2008, Euskal Herria) eta maiatzaren 8an *Sukalde Kontuak* (Aizpea Goenaga, 2009, Euskal Herria). Urrian Anjel Lertxundiren nobelan oinarritutako *Zorion Perfektua* (Jabi Elortegi, 2009, Euskal Herria) eta *Axun eta Maite* (Jose Mari Goenaga eta Jon Garaño) pantailaratzeara espero dute, eta Gabonaldian *Niko eta izarretarako bidea* (Michael Hegner,

**«Munduari bira, doan!, Sukalde Kontuak, Zorion Perfektua, Axun eta Maite etab. laster zine-aretoetan»**

Kari Juusonen, 2008, Finlandia). Bestalde, filmatze edo bikoiztapen lanetan daude oraindino *Lagun zoriontsu baten istorioa* (Peio Varela) eta *Bala galdua* (Roque Cameselle), zinema aretoetara aurten eroatea espero duten beste lan bi. Gehienak umeei zuzendutakoak dira eta animaziozkoak, baina badira helduei begirakoak eta fikziozkoak ere. Amaitzeko, Barton Filmsten web orrialdean katalogoko hainbat DVD eros daitezke. ○

## Albiste pozgarriak

Berri Txarrak-ek seigarren lana grabatuko du AEBetan Steve Albini teknikari entzutetsuagaz



Gorka Urbizuri eta Aitor Goikoetxeari David Gonzalez baxua batu zaie aurten

**Disko barraren** grabaketa lanak Chicagoko Electrical Audio estudioetan (AEB) egingo ditu talde nafarrak, "rock independentearen historian ezinbesteko musikaria eta teknikaria" den Steve Albinigaz (besteak beste Nirvana, PJ Harvey, Iggy & The Stooges edota Pixies taldeakaz ibilitakoa). Seigarren lana grabatzera apirilaren 4an sartuko da hirukotea, gaur egun Gorka Urbizuk (ahotsa eta gitarra), Aitor Goikoetxea (bateria) eta Mikel Lopez "Rubio" ren lekukoa hartu duen David Gonzalezek (baxua; Cobra, PiLT...) osatzen duten taldea. Lan barraren kaleratze data oraindino ere

zehaztu ez badute ere, aurtengo prest egotea espero dutela adierazi dute 1994an sortu zen, Berri Txarrak taldearen gaur egungo taldekideek. Jaiotzetik orain arte musika indartsu eta gitarra zorrotzeko bost disko eta dokumental eder bat plazaratu ditu taldeak; bitartean lotu dira ehunka zuzeneko, eta antza denez hurrengo diskoa ez da ez ahuntzaren gauerdiko ez tula izango, are gutxiago ziurrenik azken hatsa. Hemendik aurrerakoen eta diskoaren grabazio aldiaren barri emateko sareko esteka barrira jo daitezke. ○

Informazio gehiago:  
[www.myspace.com/berritxarrak](http://www.myspace.com/berritxarrak)

## diskoak

**Cosmonaut Camel**  
Jimmy Bidaurreta  
Gaztelupeko Hotsak



Musika etnikoaren alorrera hurbildu da Jimmy Bidaurreta donostiarra bere bakarkako lehen lan honegat. Munduan zehar bidaia elektronikoa egiten du Gasteiz Big Bandaren zuzendariak. Pianista eta teklatu jotzailea, konposatzaile eta ekoizle ere aritu da. Funk, musika elektronikoa edota jazzagaz lotuta dago bere musika.

**Hipocate tu**  
Def Con Dos  
Warner



Talde madrildarrak azken lana kaleratu barri du, estudioko lanik argitaratu barik lau urte egin ostean. Ohiko CD formatuagaz batera, beste edizio bat ere argitaratu dute; edizio berezia da, CDa bera eta *Destino Zoquete* liburuak osatzen dute, taldeko partaide Cesar Strawberry eta Alejandro Feitok idatzi dute.

**Heldu... inoiz ez**  
PAM  
PAM Productions



PutoAmoakMatematiketan Ermuko taldearen laugarren diskoa duzue *Heldu... inoiz ez!* Urte biko lanaren emaitza da, 2007ko urtarrian hasitakoa. Aurreko diskoak baino "borobilagoa da, abestien arteko kohesio handiagoa baitu", diote taldekideek. Irati Jimenezek hitzak ipini dizkiote abesti bati, gainontzeko letrak taldekideek sortu dituzte.

## disko berria > MAK

Orain dela urte eta erdi plazaratutako bigarren diskoko kantuen nahasketak eskaintzen ditu MAK taldearen lan barriak: *Hauts eta errauts Erremix* diskoak. Lana birmoldaketa denez gero, eta "zaleei une atsegina oparitzeko eta bere buruei plazer egiteko" osatu dutenez, kantuak doan utzi dituzte eta hala jaits daitezke euren sareko gunetik. Xabi (teklatuak), Pop (teknika), Lo (baxua eta kontrabaxua), Martxelo (bateria), Jon (ahotsa) eta DJ Afek (skratx) osatzen dute hip-hop taldea, sortu zenean hip-hop talde euskaldun bakarrenetakoa zen, ordurako Selektia Kolektiboa deseginda zegoelako. Halere, gaur egun badira beste talde batzuk ere.

Informazio gehiago:  
[www.myspace.com/makhiphop](http://www.myspace.com/makhiphop)

## musikagida 09 > 300 talde

Gaztesareak bultzatuko ekimenak barriro ere plazaratu du Euskal Herriko musika talde "alternatiboen" (diskoetxeakaz kontraturik ez daukatelako edota bere lanak beraiek ekoizten dituztelako) gida liburua. 180 orrialdeetan 300dik gora talderen argazkia, biografia eta harremanetarako bideak aurki ditzakegu. Liburuak balio dituen 13 euroren truke, gidaz gainera, bi cd ematen dituzte (horietan 300dik gora abesti jaso dituzte mp3 euskarrian). Hardcore, reggae, punk, rock, metal eta bestelako estiloa jorratzen duten taldeak batzen ditu gidak, Gizpuzkoako 141, Bizkaiko 109, Nafarroako 50, Arabako 29, Lapurdiko 17, Nafarroa Beherako 3 eta Zuberoako 2.

Informazioa: [www.gaztesarea.net/musikale](http://www.gaztesarea.net/musikale)



etorri  
eta  
ikusisi!!



Alangoeta 8  
(Euskal Herria kalearekin bat)  
Tfn.: 94 491 23 79

Algorta

Getxoko Andra Mari  
Gasolindegia

Etxera  
eroaten dizugu  
gasoleoa

Txartel hau aurkezten  
baduzu 3 euroko  
deskontua edukiko duzu  
zure eskarian

Getxo eta Berango artean  
Tel: 94 430 15 00

[liburuak]

## Antzerki lanen itzulpenak

**Alfonso Sastreren eta Aristides Vargasen lan bana euskaratu dute**

**Nobelak**, ipuinak (bildumak), narrazioak, poesia... irakurtzen ohituagoak gaude, eta antzerkia ikustera joan ohi gara, zaleak behintzat. Alabaina, bada antzerkiagaz gozatzeko beste aukera bat, beste bide bat: antzerkia irakurtzea; drama ikus-entzuteaz gainera, drama irakurtzen ere goza daitekeela, alegia. Hala, antzerki lan biren itzulpenen barri emango dizuegu jarraian, irakurtzeko jakinmina sortzen bazaizue ondo, eta osterantzean ikus-entzuteko aukera izan dezazula espero dugu.

Batetik, Fito Rodriguezek euskaratu du, zendutako Eva Forest emazteagaz batera aspalditik euskal herritartu zen Alfonso Sastre (Madril, 1926) idazle, dramaturgo,

**«Emmanuel Kanten azken egunak eta Haritzaren azalera zehatza»**


saiolariak 1985ean argitaratu zuen *Emmanuel Kanten azken egunak* antzerki lana. Itzultzaileak azaldu zuenez, *«Neronek pairaturiko euskal bertsoaren aitzakia Kant filosofoaren beriotzak eragindako efemeridea izan bazen ere (2004an), badago, ordea, ezkutuko beste arrazoiak: Sastreren testuak, pentsalariaren azken egunen bidez, mundua ulertzeko ohiko ikuspuntu modernoaren malda behera erakusten digu tragikomikoa»*

liburuak



**Euskaldun guztion aberria**  
Iban Zaldua  
Alberdania

Alaskako unibertsitateak gonbidatuta, Euskal Herriari buruz deus ez dakitenean aurrean, Euskal Herriko historia fantastiko bat asmatzen du unibertsitateko irakasleak. Tonu ironiko batean kontatutako istorioa da, umorez. "Euskaldun guztion aberria EusKafka da".



Alfonso Sastre (Madril, 1926-Euskal Herria)

*den metafora zoragarri batean».*

Bestetik, Uxue Alberdik ekarri du euskarara Aristides Vargasen (Cordoba, Argentina, 1954) *Haritzaren azalera zehatza* obra. Kukubiltxo antzerki taldeagaz elkarlanean egin du aurrera lanak, eta 2008ko otsailean eta uztailean (hurrenez hurren, euskarazko bertsoia eta gaztelarazkoa) egin zituzten estreinaldiak. Kultur Leioan ikusteko aukera egongo da Kukubiltxo taldeak antzetzuta eta Vargasek berak zuzenean, taldeak sarean adierazten duenez martxoaren 27an, barikua. ○

**Informazio gehiago:**  
[www.sastre-forest.com](http://www.sastre-forest.com)  
[www.kukubiltxo.com/index2.html](http://www.kukubiltxo.com/index2.html)



**Elkano, itsasoak emandako bizitza**  
Gari Bernal  
Txalaparta

Duela bostehun urte Portugalek eta Gaztelak mundua zati bitan banatzea erabaki zuten. 1519an, 265 marinelek ordu arteko bidaia handiena izango zena hasi zuten. Hiru urteren buruan, itsasontzi bakarra bueltatu zen.

[kirola]

## Haizea, ura eta oihala

Getxoko Bela Eskola



Kirol Portuko bela pabilioia, bertan dago eskola

**Getxoko** Txurruka kaiaren eta Portu Zaharraren bitartean, Kirol Portuan, dauka egoitza Udal Bela Eskolak, bertako bela pabilioian, hain zuzen ere. 2.000 metro koadroko azalera duen pabilioan "lehen mailako eta kalitatezko azpiegitura moderno eta funtzionalak" dauka erabilgai aste osoan zehar zabalik dagoen bela eskolak.

Euskal Kirol Federazioen Batasunaren eta Getxoko Udalaren ekimenez sortutako eskola urte hasieran ipini dute martxan eta "kirol jarduerak hau demokratizatzea eta edozein adin eta baldintzakoei irekita egotea, jendarteratzea" da arduradunen helburuetako bat. EAEn (Euskal Autonomia Erkidegoa) bela eskola aitzindaria ei da Getxokoa, arduradunen esanetan "beste udalerrientzat erreferentziatzeko izatea" bilatzen dute.

Ikastaroak, entrenamenduzko eta lehiako estropadak, Euskal Liga baten antolaketak, itsas ekintzak, Getxo Bela Elkarteko Klubaren sorrera, belako euskal izarrakaz itsas jardunaldiak eta Bizkaiko eskola kirola eskaintzaren barruko ekimenak dira, besteak beste, aurtengo denboral-

dian antolatuko dituzten ekimenak eta eskainiko dituzten zerbitzuak. "Gure asmoa urtean 100 bat ikastaro eskaintzea da; hala 800 bat ikasle izatea gustatuko litzaziguke", azaldu dute arduradunek.

Haurrei begira hainbat mailako ikastaroak eskaintzen dituzte: hasiera mailakoa, Hobekuntza 1. maila, Hobekuntza 2. maila eta estropada. Helduentzako ikasta-

**«EAEko lehenengo Udal Bela Eskola ei da Getxokoa»**

roak ere badira, baina arduradunek azaldu dutenez, "bereziki umeen ikastaroak bultzatu gura ditugu, hastapenetakoak; dena dela momentuz helduentzakoak dira irteten dabilzanak".

Bestalde, estropaden araudi ikastaroak, segurtasun ikastaroak eta ingurugiro ikastaroak ere ematen dituzte Getxoko Bela Eskola barrian, ontziak-eta alokatzeko zerbitzua ere badago.○

**Harremanetarako: 94 460 14 04**  
[info@getxobelaeskola.com](mailto:info@getxobelaeskola.com)

BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO

Kantxa  
Kirol moda



350 M<sup>2</sup>

KIROLERAKO GUZTIA!!

URIBE KOSTAKO  
KIROL DENDA

TORRENE 4, ALGORTAKO AZOKA  
48990 ALGORTA / TF. 94 491 18 82

ETXEKO ELEKTROTRESNEN KONPONKETA

**Lacofris.s.l.** SERVICIO

• MARKA GUZTIAK  
• 24 ORDUTAN ERANTZUNA  
• 3 HILABETEKO GARANTIA  
• 25 URTEZ ZURE ZERBITZUAN  
• IRTEERA DOAN

Tel: 94 430 52 00 Kasune, 18 · ALGORTA



**Dominique Saillard** > berdintasuna eta gatazken konponketa alorretan aditua

## “Ikuspuntu feministatik aztertuko dugu hainbat gai Getxoko Feminarioetan”



Berdintasun Zerbitzura jo informazio gehiago eskuratzeko: 94 466 01 00 edo berdintasun@getxo.net

Getxoko Feminarioetan hizlari ibiliko da Dominique Saillard otsaila eta maiatza bitartean. Berdintasuna eta gatazkek konpontzeko alorretan aditua da. Emakumeentzako Jabekuntza Eskolak antolatu ditu feminariook. Politika, bakezaletasuna, ekologia eta emakumeen aurkako indarkeriari helduko die Saillardek, “*ikuspuntu feministatik*”. Informazio gehiago eskura daiteke Getxoko Udaleko Berdintasun Zerbitzuan.

—Feminarioetan arituko zara hizlari.

—Bai, ikuspuntu feministatik aztertuko dugu hainbat gai lau asteburutan; hemendik maiatzera. Emakumeentzako Jabekuntza Eskolaren baitan kokatuta daude. Getxon nahiko urte daroagu ikastaroak ematen. Irakasle bakoitza gai zehatz batzuetan da aditua. Feminarioen formatua nahiko barria da eta jende barria erakarri gura dugu.

—Beraz, lau gai jorratuko dituzue?

—Bai, lehenengoa politika izango da. Ekinbide politikoaz ulertzen dena baino harago joan gura dugu, praktika politikoak

oso zabala dela jabetu gura dugu; ez du zertan alderdi bati atxikita egon. Jabekuntza kontzeptuaren definizioa iristeko ahalegina egingo dugu eta herrian parte hartze sozio-politikoak izateko bideak aztertuko ditugu.

—“*Negarra eta fusilatik harago: Emakumeak bakea eraikitzen*” da bigarren gaia, horregaz lotuta dago?

—Ez, gai hau urtetan landu dut nik bakezaletasun militantziaz. Gatazketan emakumeek daukaten zereginaren alde bat berririk ez da ageri hedabideetan. Gudaren hedapena egiten duten emakume solda-

duak eta gerlariak daude, baina aurkako bideari ekin diotenak ere badaude, biztanleria zibilaren kontrako erasoaren aurka protesta egiten dute eta gure gizartearen militarizazioak hartzen dituen forma guztiak salatzen dabilta. Azken horiek oso gutxi ataritzen dituzte hedabideek, bakea eraikitzearen ahaleginei espazio gutxi eskaintzen diote.

—Ekologia lotzen duzue feminismoagaz hirugarren gaian.

—Oso mugimendu garrantzitsuak izan dira XX. mendean, paraleloki garatu dira, baina askotan ez dira ezagutzen bien artean

**«Natura eta feminitatea sinbolikoki uztartu ditu patriarkatuak»**

sortutako zubiak. Emakumearen eta naturaren zapalkuntza feministotik aztertu eta zapalkuntza komuna dela ikusi dugu; ohi-tura modernoak uztartu ditu biak patriarkatutik, eta esparru publikoan emakumeen bazterketa justifikatzeko egin da askotan. Emakumeek sentimenduek gidatuta erantzuten dutela esaten dute, eta ez arrazoiak gidatuta; hots, natura izaera eman zaie. Eta alderantziz, naturaren zapalketa bere feminizazioaren bitartez justifikatu dute; oiha-nen bortxaketa, amalurra eta lur ugalkorra terminoak erabiltzen dira. Natura eta feminitatea sinbolikoki uztartu dituzte.


—Emakumeen aurkako indarkeria da azken gaia, askotan hitz egin da horretaz.

—Baina beste ikuspuntu batetik aztertuko dugu: horren aurkako borrokaren zailtasunaz. Egiteko horretan zalantzak sortzen dira, indarkeriagaz amaitzeko bide eraginkorra zigorra den eztabaidatuko dugu, edo udal-programetan gizonakaz lan egin behar den eta nola. Feminista guztiok ez dugu berdin pentsatzen eta. ○

# EROSI EUSKARAZ


aurrealdea

atzealdea



Eskatu zure betiko dendan,  
erosketak idazteko koadernotxoak

... baina euskaraz.



**Getxo**  
UDALA • AYUNTAMIENTO  
Euskara Zerbitzua

**EUSKARA BIZI**


**BFA DFB**  
Bizkaiko Foru Aldundia  
Diputación Foral de Bizkaia

**Euskara Zerbitzua**  
Getxoko Udala | 94 466 00 10  
euskara.zerbitzua@getxo.net  
www.getxo.net



**Josu Larrañaga** > Kantarepe

## “Lehengo eta oraingo aktoreak ikusi zein bezain Kantarepe antzokian”



“Harri artean, zulorik zulo, arrantzaleak ikusi dozuz, eskarreroak, karramarrotan”

**Txikitan** ezin urduriagoa zinan. Orduan, amagaz egiten zenduan ariketa errepikatzea otu jatzu, aspaldiko partez. Itxi dozuz begi nekatuok. Amak belarri ertzeraz xuxurlatu deusuzan laztan-berbak aditu dozuz, irria ezpanetan. Abots eziz ekin dau. Joxe, ahaztu eizuz larritutuen zaittuenak: biharra, kamiñuak, kalera jundako horreek. Jun zaitte txoko bare, jente bako batera... Askotan lez, Usategitik aurrera, bidezidorretik behera Kantarepera heldu zara... Orain, edegi eizuz ondo begixok... Bada ordu erdi eskas atertu dauala. Mendebala dabil. Hankabikorik ez, baina buru ganean kalaxori-festa aditu dozuz, txilioka. Hatxetan

barriz, ubarroiak –urgalloak– hegoak zabal, goibel antzean. Harri artean, zulorik zulo, arrantzaleak ikusi dozuz, eskarreroak, karramarrotan. Hatx hutsok osotzen dabe hemengo geografia: Sanson hatxa, Ama Birjinearen hatxa. Labarrotatik itsaso zabal mugabakoak kulunka zarabilz. Hur, Serantes mendia txapela ezin erantzita. Eskumatara Abasotako muturra, bitsetan. Pilotuaren hatxak zuri kolorekoa dirudi. Iluntzeaz batera bariku gaueko joan-etorria sumatu dozuz. Kale-zurruterako prest, hurreko supermerkatuaren baten ehizatutako poltsa ondo hornidutako hutsituen hasi dira nerabe zalapartariak... Ostean gaua,

gau baltza. Joxe baina, loak hartu zaittu ta! Izartu zaitu ama zanak. Abots gora bota dozuz: “Segiduko ahal dau kalatxu honek azken ehunka urteotako traza edukiten?” Behar kontuak zeharo ahaztu dozuz, hori gura zenduan. Poztu zara, ikaragarri poztu be, pasa dan gizaldiko 40ko hamarkadean Merino izeneko alkateak izandako porrotaz. Portu Zaharretik Arrigunagarainoko ibilbidea egitea pentsatea be! Diru falteak gizakion neurriara ekarri barik itxi eban txoko hau. Krisi guztiak txar-txarrak be ez dira. Urte askotarako, Kantarepe! ○

### Toponimoa > **Kantarepe**

**Kantarepe (kala edo kalea):** Toponimo ezagun honen osagaiak Bizkaian arrunta den kantara ‘harrobi’ hitza, hurrengo silabako –e–ren eraginez kantare bihurtuta, eta behe-ren aldaera den –pe dugu. Barrutia: Algorta (Getxo)

Getxoko leku izenak liburutik ateratako informazioa

## Txiberri taberna

Giro jatorra, eskupilota eta ogitartekoak



Jon Arrarte Txiberri tabernan

**Gerra aurretik**, 1934. urtean, zabaldu zituen atak Urdulizko Txiberri tabernak. Jon Arrarte egungo jabearen “aitxitxea” izan zen tabernaren lehenengo arduraduna. Izena berak eman zion: “Gerra denboratan Euskadi egunkarian idazten zuen aitxitxek; artikuluak sinatzeko Txiberri ezizena erabiltzen zuen”. Historia idatzi duen lokala da Txiberri. 36ko gerra baino lehen, Euskal Herriko lehenengo Batzokia izan zen. Gerra amaitutakoan, eskola klandestino moduan erabili zuten 40 urtez. Horrez gain, denda, jantokia eta beste hainbat erabilpen izan ditu: “Beti mantendu dena taberna izan da; bestea, beharren arabera egokituz joan da”.

Astelehenetik astelehenera, goizeko 10:30ak inguru zabalitzen ditu atak

Txiberrik: “Ez daukagu ixteko ordurik, egunaren arabera da”. Edariez gain, pintxoak eta ogitartekoak ematen dituzte: “Lehen etxeko txorizoak ematen genituen, baina osasungintzakoak debekatu egin ziguten”. Orain dela sei urte arte, kontzertuak antolatzen zituzten: “Utzi egin behar izan genuen; adinean aurrera goaz eta gorputzak ez du ematen”. Hala ere, Txiberriko bezeroak ez diote joateri utzi; izan ere, giro herrikoi eta beroa da inguruko beste tabernetatik ezberdintzen duena: “Sopelako edo inguruko tabernetara joan aurretik, Urdulizko jendea hona etortzen da”. Uda partean, pilota txapelketak antolatzen dituzte: “Bertso-afariak eta txangoak antolatu izan ditugu ere bai; edozein proposamenenera zabalik gaude”. ○

Aita Gotzon 4, URDULIZ  
Tel.: 94 676 07 15

**KONTXI**  
ZUAZUBISKAR

URDAITEGIXA

Adituak gara, Urdaiazpiko Iberiko,  
Pate eta Gaztietan!!

Alangobarri, 10 ALGORTA  
T.: 94 491 02 93

**G** gOZOLABEA  
galdaretxe

- Maidagan, 35 GETXO Tel. 94 491 11 25
- Mayor, 17 AREETA Tel. 94 464 77 29
- Sabino Arana, 67 LEIOA Tel. 94 464 40 58
- Telletxe, 11 ALGORTA Tel. 94 460 32 14
- Sabino Arana, 9 SOPELA Tel. 94 676 11 01



ARTAZA ETXEA

jatetxea

- gozariak
- txuletoia • makailua
- arrain freskuak

asteburuetan bazkari eta afariak enkarguz

Erreserbak: 94 463 03 92

Artaza Etxea Eraikina. Gobela eraikinaren aurrean • LEIOA

JUAN-MARI




Harategia eta txarkuteria



LAS MERCEDES 31 • TEL.: 94 464 41 25

AREETA



BASALBO BASERRIA

JATETXEA

TEL./FAX: 94 491 34 91

MARTITURRI ESTARTA 18  
48993 ANDRA MARI -  
GETXO

basalbobaserria@yahoo.com





**ITXASGANE**  
prentsa • aldizkariak  
GETXOKO KIROL PORTUA  
Arriluze z/g • Tel & Fax: 94 491 53 21  
ALGORTA • GETXO

**BATIZ KRISTALDEGIA**



- BIDRIERAK
- GRABATUAK AREA TEKNIKAREKIN
- ISPILU ERRALDOIAK
- INSTALAZIO OROKORRAK
- FUSIN

Illeta z/g (Sarrikobasorekin bat)  
T:94 430 69 42 /ALGORTA

**GOIZEAN**



Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez pent  
Prentsa - Fruitu lehorrak - Aldizkariak - Lixarriak

Orduña Mendatea 1      Telletxe 13  
T: 430 22 13              T: 460 02 88  
GETXO                      ALGORTA

**Usategi kafetegia**




*Usategi parkea z/g,  
Algorta*

\*Telf. erreserbak: 94 460 64 13

[horoskopoa]

<p><b>URA</b></p>  <p><b>(Abenduak 21 urtarrilak 19)</b> Azkenean harrapatu duzu martxa, goiz esnatu, kirol pixka bat egin, lanera... Eta aldarre hobea nabaritzen zaizu. Oso ondo, segi horrela!</p>	<p><b>OTSOA</b></p>  <p><b>(Urtarrilak 20 otsailak 18)</b> Zerotik ehunera egun batetik bestera, hori ere ez da sana. Lasaia hartu beharko zenituzke ikasketak, oraingoan ez bada, hurrengoan gaindituko duzu eta.</p>	<p><b>ADARRA</b></p>  <p><b>(Otsailak 19 martxoak 20)</b> Laster beteko dituzu urteak, baina nola ospatuko dituzun pentsatu duzu? Ez urzi aukera pasatzen, urtean behin behin baino ez daukazu aukera hori eta. Segi lagunakaz parrandan!</p>
<p><b>AITZURRA</b></p>  <p><b>(Martxoak 21 apirilak 19)</b> Azkenaldian zenuen arazoa konpondu duzu dagoeneko, zorianak! Irribarrea bueltatu zaizu aurpegira. Ikusten duzunez, albiste onak ere gertatzen dira batzuetan.</p>	<p><b>HOSTOA</b></p>  <p><b>(Apirilak 20 maiatzak 19)</b> Lanagaz aztoratuta zabilta azkenaldian, eta nagusiak zoraturatza zaizka. Robota ez zarela eta pazientzia apur bat izan beharko lukeela esan beharko zenioke, animo!</p>	<p><b>EGUZKIA</b></p>  <p><b>(Maiatzak 20 ekainak 18)</b> Inauterietako moztorra prestatzen zabilta jo ta fuego, baina nabaritzen da hariagaz eta orratzagaz esperientzia handirik ez daukazula. Beharrezkoa baduzu, laguntza eskatu.</p>
<p><b>GARIA</b></p>  <p><b>(Ekainak 19 uztailak 18)</b> Azterketak amaitu dituzu azkenean. Ondo joan bazaizu, aste honetan unibertsitarien eguenetako parranda egin zenezake, baina txarto joan bazaizu ere, atera zaitetz eguenean, eginak eginda daude eta!</p>	<p><b>LASTOA</b></p>  <p><b>(Uztailak 19 abuztuak 17)</b> Asteotan eder eta lerdin zaude. Zure erakargarritasuna baliatu eta urten zaitetz asteburu honetan, seguru asko hurbilduko zaizu eta horren gustuko duzun laguna.</p>	<p><b>IRATZEA</b></p>  <p><b>(Abuztuak 18 irailak 16)</b> Azkenean estreinatuko duzu bizikleta. Bazen garaia! Gainera, serio ekin diozu entrenamenduari. Horrela jarraituz gero, Tour-erako fitxatuko zaituzte, hori da abiada hori!</p>
<p><b>META</b></p>  <p><b>(Irailak 17 urriak 16)</b> Dagoeneko Aste Santuko oporretan pentsatzen? Helduko dira, baina lasai zaitetz, hilabete bakarra eman duzu lanean eta ez da horrenbestera. Baleriana har dezakezu lasaitzeko.</p>	<p><b>HAZIA</b></p>  <p><b>(Urriak 17 azaroak 15)</b> Ez zinen fido izan, baina azkenean igaro da bolada txarra. Egoera beretsuan dabilen lagunari lagundu beharko diozu orain, behar zaitu eta zuk badakizu nola alaitu.</p>	<p><b>NEGUA</b></p>  <p><b>(Azaroak 16 abenduak 20)</b> Argi zegoen ez zenuela astirik izango beherapenetan erositako guztia estreinatzeko. Mugi zaitetz, horza amaitu eta hurrengo negura arte itxoin gura ez baduzu, behintzat.</p>



**KOSKA**  
irratia 108 fm


[www.koskairratia.com](http://www.koskairratia.com)



denborapasa

**LUMA aldizkariaren eskutik**

**HITZ GURUTZATUAK**



**Ezker eskuin**

1. Bazegoen. Ebaren lagun hura. 2. Abestuz eta orkestraren laguntzaz antzeztzen den lan dramatikoa. 3. Erdietsi. Gaztelaniaz, maitasun. 4. Sarrera nahiz irteera. Beldurti. 5. Kentzen den kopuru. 6. Ate-eremu. 7. Deitura. Ingelesezt, bero. 8. Ile. Ohola. 9. Larru. Belardi, belaze. 10. Italiako diru zaharra. Agian, menturaz .

**Goitik behera**

1. Esferak. Alderantziz, sumendietatik ateratzen gaia. 2. Aketz, ordots. Iraun. 3. Kausa partikula. Barazki lekadun. 4. Erdi, hitz elkarketan. Sukaldeko ontzia. 5. Naute. 6. Nafarroako herria, Bortzirietan. 7. Nafarroako ibaia, Sakanan. Helduak euskalduntzeko erakundea. 8. Bizkaiko herria, Arratian. Motela. 9. Baztan aldean bizi zen arraza bateko kide. Hitz. 10. Alderantziz, Asiako estatua. Hala esaten diote erdaldunek Lizarra aldeko Etaiu herriari.

**Soluzioak**

O	S	V	K	A	V	K	L	I	K	A
I	V	L	E	Z	L	V	Z	A	V	A
L	U	A	L	O	L	B	I	L	B	A
T	O	H	N	E	N	Z	A	B	I	A
E	S	E	L	A	L	A	T	A	V	A
K	E	N	A	R	I	K	A	R	I	K
I	A	T	I	K	A	K	A	V	A	T
R	O	M	O	U	L	O	R	T	O	R
A	R	I	G	A	R	H	A	R	I	G
A	D	E	N	A	D	E	N	A	D	E

asmatu eta irabazi > **lagun birentzako bazkaria**



Nor da?

- Arraunlarien lagun eta aholkulari
- Bere aiurri txarra ezaguna da askorentzat
- Argentinako Patagonian ikusi dugu azken boladan

> Aurrekoaren erantzuna: Ainhoa Arteta  
> Irabazlea: **Idoia Doxandabaratz**

\*deitu telefonoz goizez: 94 491 13 37

Bidali erantzuna eta zure izen-deiturak; asmatzen duzuenon artean lagun birentzako degustazio berezia zozketatuko dugu:  
UK Uribe Kostako Aldizkaria. 171 posta kutxa 48990 Getxo  
uk@aldizkaria.biz

*Usategi*  
kafetegia



Usategi parkea z/g, Algorta  
Telf: erreserbak: 94 460 64 13



ANDONI INTXAURTETAK UTZITAKO ARGAZKIA

**Bittor Egurrola**

**PLENTZIAKO TXIKITEROAK, 1973 (II)**

**Aurreko alean** Plentziako Txikiteroak taldearen historia ekarri genizun Flash Back atal honetara. Gure gaizki ulertu bat dela eta, argazkian agertzen direnen izenak ez zetozen argazkiagaz bat. 151. ale honetan, argazkia dagozkion izenak ekarri dizugu. Barkatu eragozpenak! ○

**Goitik hasita, ezkeretik eskuinera:**

- 1. Ierroa:** C. Madariaga (GB), Luis Oliva(GB), Acha(GB), Fullaondo
- 2. Ierroa:** Lasa, Teodoro Olivares (GB), "Tatono" Mentxakatorre (GB), Vicente Merino, Temple, Nicolas Fernandez ,I. Arrola
- 3. Ierroa:** J.P. Landa, Juanito Ibargurengoitia(GB), Anton Intxaurtieta (GB), Beitia (GB), Felix Torrontegi (GB), ??, ??, J. Zuazo
- 4. Ierroa:** Txema Loiola (GB), More, Julian Bilbao, Luis Eguskiza, J.J. Garaizar, ??
- 5. Ierroa:** Titepa, Kirka, Casimiro Aldama, Serafin Ruiz (GB), ??, Pablo Ortiz (GB), Jesus Orozko
- 6. Ierroa:** J. Martinez, A. Etxebarrieta (GB), Julian Murcia, Jose Bilbao, Carlos San Nicolas, Potxon Zabala, Pablo Landa, J. Arriola (GB), J. España, Luis Perez
- 7. Ierroa:** Pedro Zarate (GB), Jose Beitia (GB), Enrique Larrabaster, David Saez (GB), Manu Saez (GB), Andoni Linaza (zuzendaria), Galardi, F. Arrola "Txitxa" (GB), Jesus Bilbao (GB), J. M<sup>a</sup> Oiartibe, Angel Landa.



gure posta elektronikoa

**uk@aldizkaria.biz**

**UK Uribe Kostako Aldizkaria**



**JON ARRETXE** > Idazlea

# “Izpiritu gaiztoek beldurra ematen didate, ezin ditugulako ikusi”

Testua: **Maitane Nerekan**



**Zer gura zenuen izan txikitan?**

Egun bakoitzean gauza bat: pilotaria, piano-jotzailea, astronauta, kazetaria....

**Historiako zein pertsonaia miresten duzu gehien?**

Ghandi. Izaera baketsuari eutsiz sekulakoak lortu zituelako.

**Zerk ematen dizu beldurra?**

Izpiritu gaiztoek, ezin ditugulako ikusi.

**Zure haurtzaroko oroitzapen bat.**

Gogoko nuen "esperimentu" arriskutsuak egitea etxean bakarrik geratzen nintzenean: entxufetan artaziak sartzea, mahai-aulkietan olio isuri eta sua pizten saiatzea....

**Berriz egingo zenukeen bidaiarik badago?**

Bidaiak ez dira inoiz errepikatzen; lekua berdina izan arren, aldia beste bat da. Dena dela, nire gogoko leku batzuetara itzuli naiz.

**Animalia izango bazina zein gura zenuke izan?**

Arranoa, inbidia ematen didalako haren hegaldi dotoreak eta gauzak goitik ikusteko gaitasunak.

**Gehien gorroto duzun topikoa?**

Herrialde txiroak tristeak eta arriskutsuak direla. Gezurra delako.

**Irakurri duzun azken liburua?**

*Zure bila isasoa bilatuko dut*, Jose Luis Padronena. Lehengo estiloko poesia da, oso adoretsua, ederra benetan.

**Euskal Herriko zure txoko kuttuna?**

Itxina, ingurune paregabea izateaz gain, han barruan bakarrik egonda oso sentiera bereziak izaten ditudalako.

**Parranda politenak non?**

Gasteizko lehengo ostegunetan, sekulako giro sanoa egoten zelako. ○

**LABURREAN**— Bizkaitarra bada ere, bizitzaren parte handia Gasteizen eman du Jon Arretxek (Basauri, 1963). Gaur egun, Nafarroako Arbizu herrian bizi da. Gizon polifazetikoa da Arretxe; Euskal Filologian doktoratuta eta Heziketa Fisikoan lizentziatua izateaz gain, Piano Karrera egin zuen Bilboko kontserbatorioan. Unibertsitatean, zein kontserbatorioan ikasten jarraitzen du oraindik eta Bilboko Opera Koruan abesten du. Deustuko eta Euskal Herriko Unibertsitateetan irakasle izan da 13 urtez; baina, batez ere, eleberrri askoren egilea izateagatik da ezagun. *Urrezko triangelua*, *Ostiralak*, *Manila konexioa* eta *Fatum* nobelak idatzi ditu, beste askoren artean.





**UNAI ZIARRETA**  
**INDEPENDENTEA**  
LEHENDAKARI HAUTAGAIA CANDIDATO A LEHENDAKARI

